



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko maiatzaren 5a

60. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostena, Foru Sektore Publikoak zenbait basogintza-enpresarekin egindako finantza- eta kontratu-eragiketei buruzkoa, 1997tik 2012ra (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostena, Foru Sektorre Publikoak zenbait basogintza-enpresarekin egindako finantza- eta kontratu-eragiketei buruzkoa, 1997tik 2012ra.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Foru Sektorre Publikoak zenbait basogintza-enpresarekin egindako finantza- eta kontratu-eragiketei buruzkoa, 1997tik 2012ra, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostena, Foru Sektorre Publikoak zenbait basogintza-enpresarekin egindako finantza- eta kontratu-eragiketei buruzkoa, 1997tik 2012ra

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Fiskalizazioaren helburuak, norainokoa eta mugak (3. or.).
- III. Aurrekariak (4. or.).
- IV. Ondorioak eta gomendioak (6. or.).
 - IV.1. Echaury Forestal, S.L. sozietatea (6. or.).
 - IV.2. Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.rekin egindako finantza-eragiketak (9. or.).
 - IV.3. Foru Administrazioaren eta haren sozietate publikoen basogintza enpresekiko kontratu-eragiketak. (10. or.).
 - IV.4. Ondorio orokorra (11. or.).
 - IV.5. Gomendioak (14. or.).
- V. Fiskalizatutako eragiketen deskribapena (15. or.).
 - V.1. Echaury Forestal, S.L. sozietatea (15. or.).
 - V.2. Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.rekin egindako finantza-eragiketak (26. or.).
 - V.3. Foru Administrazioaren eta haren sozietate publikoen basogintza enpresekiko kontratu-eragiketak. (28. or.).
- 1. eranskina. Argazkiak (31. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (33. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (40. or.).

I. SARRERA

2013ko irailaren 2an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Ezkerreko-Parlamentu-taldearen ekimenez, erabaki zuen Kontuen Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea "Nafarroako Gobernuaren zenbait enpresa publikok Deltor Green, S.L., F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. eta Plantaciones Forestales S.L. enpresen akzioetan parte hartzeko egindako eragiketei buruz, eta Nafarroako Gobernuak edo bere enpresa publikoek enpresa horiekin sinatutako kontratuei buruz, 1997tik hasita".

Fiskalizazioan, Echauri Forestal, S.L. enpresa mistoaren fiskalizazioa sartu dugu, zeren eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. eta Plantaciones Forestales, S.L. enpresek haren eraketan edo jardueran parte hartu baitzuten.

Azterlana Kontuen Ganberak 2013. urterako onartu zuen urteko fiskalizazioko programan sartu zen, eta auditoriako bi teknikaririk eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen 2013ko azarotik 2014ko urtarrilera, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzan.

Txostenak bost atal dauzka, sarrera hau barne, eta eranskin bat, non erakusten baititugu landatutako alorrera 2014ko urtarrilaren 28an egindako bisitan egin genituen argazkiak.

Txostenaren bigarren atalean, fiskalizazioaren helburuak, norainokoak eta mugak adierazten ditugu, eta hirugarren atalean, berriz, auditatutako eragiketa nagusien laburpena ematen dugu. Laugarren atalean deskribatzen dira egindako lanean lortu diren ondorioak eta funts publikoak hobeki kudeatzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak. Azkenik, bosgarren atalean, fiskalizatutako eragiketak zabaldu eta ondorioak azaltzen dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Gestión Ambiental de Navarra, S.A., Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. eta Corporación Pública Empresarial, S.L.U. sozietateei, Landa Garapeneko, Ingu- rumeneko eta Toki Administrazio Departamentuari eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta En- plegu Departamentuari lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Fiskalizazioaren helburua da gure iritzia ematea 1997tik Foru Administrazioak eta haren so- zietate publikoek Deltor Green, S.L., F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. eta Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-enpresekin egindako eragiketa batzuei buruz. Honakoak dira era- giketa horiek:

- Echauri Forestal, S.L. sozietate mistoaren eraketa eta jarduera.
- Kapital sozialean eta maileguak eta abalak ematen parte hartzeko finantza-eragiketak.
- Kontratu-eragiketak

Fiskalizazioak 1997tik 2012ra bitarteko aldia hartzen du.

Norainokoan Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L. enpresa sartu dugu, zeren eta Echauri Fo- restal, S.L. sozietateak kontratatatu baitzuen sail landatuan lan batzuk egiteko. Gainera, haren organo so- zialetan zeuden edo lehenago egonak ziren pertsona batzuk unerren batean F.I. Excavaciones y Refore- staciones, S.L. eta Plantaciones Forestales, S.L. enpresetako organo sozialetako kideak izan ziren.

Sozietate publikoek egindako jarduketari eta hartutako erabakiei buruzko ebidentziak hona- koak ditu oinarri: sozietate horien administrazio kontseiluen, batzar nagusien eta batzorde exe- kutiboen aktak, kontabilitate-liburuak eta egindako eragiketei buruzko ziurtagiriak.

Deltor Green, S.L., F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L., Plantaciones Forestales, S.L. eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L. sozietateei buruzko merkataritza-informazioa eta informazio ekonomikoa Merkataritza Erregistroan eta haien kapitalean parte hartu zuten so- zietate publikoetan lortu zen.

Halaber, Foru Administrazio departamentuei, haien erakunde autonomoei eta haien men- peko sozietate publikoei informazioa eskatu genien aurreko enpresekin 1997tik gaur arte egin- dako finantza-eragiketei eta kontratuei eta enpresa horiei emandako diru-laguntzei buruz. Diru-

laguntzei dagokienez, soilik jaso da 2003an Hezkuntza Departamentuak 315 euro eman zizkiola F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri

Eman dizkiguten dokumentuen eta egindako gastu batzuen agiri bidezko justifikazio eskasaren artean kontraesan batzuk badaude, eta horrek muga bat ezartzen digu hartutako erabakien eta fakturatutako jarduketan exekuzioaren arrazoizkotasunari buruz iritzia emateko.

Lan hau Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz gauzatu da.

III. AURREKARIAK

- Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones, S.A. (aurrerantzean, Viveros, SA) eta Navarra de Financiación y Control, S.A. (aurrerantzean, Nafinco, SA) Foru Komunitateko sozietate publikoek zur nobleen merkataritza jardueran inbertitu zuten F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L. eta haren bazkide bakar Deltor Green, S.L. sozietateen ekimenez. Horri dagokionez, Echauri Forestal, S.L. sozietate mistoa sortu zen, eta Deltor Green, S.L. sozietatearen kapitalean parte hartu zen.

- Echauri Forestal, S.L. 2002ko abenduan eratu zen, 300.000 euroko hasierako kapitalarekin. Kapital horren ehuneko 70 Viveros, S.A.rena zen eta ehuneko 30, berriz, Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-enpresarena.

Echauri Forestal, S.L.ren helburu soziala zen zuhaitzak, haien produktuak eta haien azpi-produktuak landatu, garatu, landu eta merkaturatzea; bereziki, genetikoki aberastutako zur nobleak. Echauri Forestal, S.L.ren jarduera haritzen, intxaurren eta gerezi amerikarren landaketan zentratu zen, Etxauriko 70 hektareako lursail batean. Nafarroako Gobernuak atxiki zion lursail hori Echauri Forestal, S.L.ri.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ren ekimenez sustatutako zur nobleen landaketarako eta ustiaketarako proiektu honetan, Echauri Forestal, S.L.ren bazkide pribatu gisa parte hartu zuen Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-enpresak, 2001ean sortuak. Izan ere, enpresa horren organo sozialetan Deltor Green, S.L. eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L. merkataritza-enpresen organo sozialetan zeuden pertsona berak ageri dira.

Sozietate mistoko kide guztiak elkarren artean itun parasozial batzuk sinatu zituzten, eta haien indarrez eta kontuan hartuta teknologia bazkide pribatuak, Viveros, S.A. sozietate publikoak, jartzen zuela, nahiz eta kapitalaren ehuneko 70 eduki eta basogintzaren sektorean eskarmentu handia izan, bazkide pribatuari laga zizkion erabaki teknikoekin eta Echauri Forestal, S.L.ren garapen sozialaren garapenarekin lotutako eskubide politiko guztiak. Horrek, praktikan, proiektua garatzeko eta ezartzeko kontratu ia guztiak hartzen zituen.

Inbertsio proiektuaren kostua, guztira, 5.907.955 eurokoa izan zela kalkulatu zen, 25 urtean. 2002tik 2012ra doan aldian, sozietateak 3.913.596 euro inbertitu zituen sail landatua egokitzen, zuhaitz-landareak erosten eta alorra mantentzen.

Gastuen ehuneko 89 F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L., Plantaciones Forestales, S.L., eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L. merkataritza-enprekin kontratatu zen.

Inbertitutako guztiaren ehuneko 85 Viveros, S.A. eta Nafinco, S.A. sozietate publikoek finantzatu zuten.

- 2003ko martxoan, Echauri Forestal, S.L. eratu eta hiru hilabetera, Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L. merkataritza-enpresak onetsitako kapital-handitzearen ehuneko 33,33 izenpetu zuen. Partaidetza hori ondoz ondoko izenpetzeen bidez zabaldu zuen, 2007an kapitalaren 50 hartzearaino. Guztira, 2.709.266 euro inbertitu zituen. 2003tik, Nafinco, S.A.k zeharka parte hartzen zuen, ehuneko berekin, F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. sozietatearen kapitalean. Sozietate hori Deltor Green, S.L.k erosi zuen, Nafinco S.A.k hartan parte hartu eta ondoren.

- Eragiketa hauetan parte hartu duten lau merkataritza-enpresak, Deltor Green, S.L., F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L., Plantaciones Forestales, S.L. eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L., une batean edo bestean elkarrekin lotuta egon dira, enpresa-talde bat osatuz, edo, bestela, haien organo sozialetako kideak berak izan ziren ekitaldi desberdinetan.

Hartara, 2003tik, Deltor Green, S.L.ren –F.I. Excavaciones y Reforestaciones Forestales, S.L.ren administratzaile bakarra– bi kontseilari delegatuak Plantaciones Forestales, S.L.ko kontseilariak ziren. Bestalde, Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.ko kontseilarietatik bi Plantaciones Forestales, S.L.ren eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren kontseilariak ziren; azken enpresa hori, bestetik, Deltor Greenen azken filiala zen 2003tik. Horrenbestez, merkataritza-sozietate horien administrazioan pertsona berak egon ziren hainbat ekitalditan.

- 2004an, Nafinco, S.A.k Viveros, S.A. sozietate publikoari Echauri Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 70 eta 2006an gainerako ehuneko 30a erosi zizkion F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri –hain zuzen hori ehuneko 30 hori 2004an erosi zion enpresa horrek Plantaciones Forestales, S.L. enpresari–. Hiru urte baino gutxiagoko denboran, Echauri Forestal, S.L.ren partaidetzak saltzearen poderioz, zur nobleen ustiaketarako jartzen zuten teknologiarengatik hautatutako bazkide pribatuek Echauri Forestal, S.L.ren kudeaketa teknikoan parte hartzeari utzi zioten, eta parte-hartze hori Nafinco, S.L.ren esku geratu zen.

- Horrenbestez, 2006tik, Nafinco, S.A. da Echauri Forestal, S.L.ren bazkide bakarra, eta 2007tik zuzenean parte hartzen du Deltor Green, S.L.ren kapitalaren ehuneko 50ean eta, zeharka, F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren kapitalaren ehuneko 50ean.

2011tik aurrera, Foru Komunitateko enpresen sektore publikoa berrantolatzearekin, Viveros, S.A.k xurgatu zituen Echauri Forestal S.L. eta Navarra de Medio Ambiente S.A. sozietateak, eta sozietate xurgatzaileak, Viveros, S.A.k, honako izena hartu zuen: Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

Nafinco S.A., berriz, Sodena S.A., Navarra de Gestión para la Administración S.A. eta Fondo de Jóvenes Empresarios, S.A. sozietateekin fusionatu zen, Sodena, S.L. sozietate berria sortzeko.

- 2007an, Deltor Green, S.L.k kereila kriminal bat jarri zuen Deltor Green, S.L. sozietateko ahaldun, kontseilari ordezkaria zen pertsona fisikoaren aurka, kontuak faltsutzeko ustezko sozietate-delituarengatik, agiriak faltsutzeagatik eta ondasunak bidegabeki bere egiteagatik. 2014ko martxoaren 14an, epaia eman zen, eta akusatuari, merkataritza-agirian faltsutze-delitu jarraituak egiteagatik eta ondasunak bidegabeki bere egiteagatik, lau urteko eta hiru hilabeteko espetxealdiko zigorra ezarri zitzaion, bai eta diru-zenbateko eta kalte-ordain batzuk itzultzeko zigorra ere.

Deltor Green, S.L. enpresa borondatezko likidazio prozesuan dago 2007tik. Prozesu hori gerarazita dago kereila kriminala ebazten ez den bitartean, zeren eta Nafarroako Probintzia Auzitegian errekurtsioa aurkeztuta baitago.

2008an, F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. azkendu zen, Deltor Green, S.L.k xurgatu baitzuen.

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Honakoak dira egindako fiskalizazioaren ondorioak, lanaren norainokoa kontuan hartuta:

IV.1. ECHAURI FORESTAL, S.L. SOZIETATEA

IV.1.1. Eraketa

- Gure iritziz, sozietate bateko kapitalean parte hartuz inbertsioak sustatzeko jardura hori egokiagoa izanen zen Sodena, S.A. edo Nafinco, S.A. sozietate publikoen eskutik egitea.

Eragiketa hau zur nobleak ustiatzeko enpresa-proiektu batean inbertitzea balitz bezala aurkeztuta, proiekturako ekar zezakeen teknologia dela-eta hautatutako eta gutxiengoan zegoen bazkide pribatu batekin, Viveros, S.A. sozietate publikoak zuzenean hautatu zuen bazkide pribatua. Nolanahi ere, erabakia behar bezala arrazoitu eta justifikatu behar zen.

Viveros, S.A. sozietatearen bileretako aktetan, bai Echaury Forestal, S.L. eratu aurretik egindakoetan, bai enpresa hori sortzeko egindakoetan ere, argi geratzen da Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zur nobleen proiektu honi ematen dion bultzada eta babes ekonomikoa.

- Honakoak dira inbertsio horren justifikazioaren euskarriak: zur noblei buruzko aurkezpen orokor bat, 5.907.955 euroan kalkulaturako inbertsio baterako txosten ekonomikoa bat –biak ere F.I. Excavaciones y Reforestaciones enpresak eginak–, eta enpresa horrek Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-enpresarekin egindako proiektu tekniko bat. Nafarroako Gobernuak Injeneriarik eta Ogasun Departamentuak, oro har, zur nobleen bideragarritasun teknikoari buruz informatu zuen.

- Viveros, S.A. sozietate publikoak 2001ean eraturako Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-enpresari laga zizkion erabaki teknikoetan edo xede sozialaren (zur nobleen landaketa, garapena, lanketa eta merkaturatzea) garapenean eragina zuten eskubide politiko guztiak.

Erabaki hori Echaury Forestal, S.L.ren bazkideen artean izenpetutako itun osagarrietan adostuta bazegoen ere eta inbertsio berritzaile hori Nafarroarentzat oso berezitua izateak justifikabalezake ere kudeaketa teknikoaren zama bazkide pribatuaren bizkar uztea, ez dirudi arrazoi-zkoa denik Viveros, S.A. sozietateak, zeinak partaidetzaren % 70 baitzeukan eta baso-jardueren kudeaketan 20 urte baino gehiagoko esperientzia baitzuen, besteak beste ikerketa eta garapen teknologikoaren arloan, ez edukitzea inolako eskubide politikorik Echaury Forestal, S.L.ren kudeaketa teknikoari dagokionez.

IV.1.2. Bazkide pribatuen partaidetzen salmenta

- 2004an, Plantaciones Forestales, S.L.k F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. enpresari saldu zion Echaury Forestal, S.L.n zeukan kapitalaren ehuneko 30eko partaidetza.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.k osorik izenpetu zituen eta bere egin zituen Viveros, S.A.ren eta Plantaciones Forestales, S.L.ren artean izenpetutako itun osagarriak

2006an, F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k Nafinco sozietate publikoari saldu zion Plantaciones Forestales, S.L.ri erositako ehuneko 30eko partaidetza.

Hiru urte baino gutxiagoan, zekarren teknologia zela-eta hautatutako bazkide pribatuak jada ez zuen partaidetzarik Echaury Forestal, S.L.n, eta Echaury Forestal, S.L.ren kudeaketa teknikoarekin lotutako eskubide politiko guztiak, bai eta finantzaketa bera ere, Nafinco S.A.k hartu zituen bere gain.

IV.1.3. Echauri Forestal, S.L.ren jarduera

- 2002tik 2012ra doan aldian, Echauri Forestal, S.L.k 3.913.596 euro inbertitu zituen zuhaitz-landareak erosten eta zur nobleen sail landatua egokitzen eta mantentzen. Gastuen ehuneko 89, Plantaciones Forestales S.L.k, F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.k eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones S.L.k exekutatu zituzten, zuzenean kontratatuta baitzeuden.

- Egindako lanen euskarri diren fakturretan ez dira zehazten, baloratzen eta neurtzen egindako lanak, eta ez dago jasota haiei buruzko adostasun edo onarpenik.

Echauri Forestal, S.L.k ez zeukan langilerik, eta ez daukagu jasota, 2007ko ekitaldiaren kasuan izan ezik, sail landatuan 2003tik 2012ra arte inbertitutako gastuen jarraipen tekniko egin zenik.

- Zuhaitz-landareen prezioari dagokionez, 2002ko abenduan, Echauri Forestal, S.L.k F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. merkataritza enpresari (Deltor Green, S.L.ren filiala), genetikoki hobetutako 23.310 zuhaitz-landare erosi zizkion, ale bakoitzeko 27,05 euro ordainduta. 2007an, Foresta Mantenimiento de Plantaciones S.L.ri 8.122 zuhaitz-landare erosi zitzaizkion, ale bakoitzeko 42,3 euro ordainduta.

Horri dagokionez, eta prezio horiekiko alderaketaren erreferentzia gisa, 2003ko martxoan Deltor Green, S.L.k zuhaitz-landare bakoitzaren salmenta prezioa ale bakoitzeko 12 euroan jartzen zuen (Nafincok haren kapitalean parte har zezan aurkeztu zuen dokumentazioaren arabera). Prezio hori nabarmen txikiagoa da hiru hilabete lehenago ale bakoitzeko ordaindutako 27,05 prezioa baino.

- Profesional batek sail landatuari buruz egindako balorazio-txosten baten arabera, 2011ko abenduaren 31n 22.304 zuhaitz-landare daude bizirik; horrenbestez, 9.128 zuhaitz-landare hil dira. Ondoren aipatzen ditugu sail landatuan nolako espezieak dauden:

Espeziea	2002ko erosketak	2007ko erosketak	2011-12-31n kalkulaturako zuhaitz-landareak	Galdutako zuhaitz-landareak	Kalkulatutako galerak (%)
Intxaurren beltz amerikarra	9.990	4.932	14.290	632	4
Gereziondo beltz amerikarra	9.990	3.190	8.014	5.166	39
Haritz gorri amerikarra	1.665		0	1.665	100
Haritz zuri amerikarra	1.665		0	1.665	100
Zuhaitz-landareak, guztira	23.310	8.122	22.304	9.128	29

Nabarmentzekoa da 2007an 2002an erositako zuhaitz-landareen ehuneko 35 birlandatu zirela, eta erositako zuhaitz-landareen ehuneko 29 galdu direla; horien artean daude haritz espezieen ale guztiak, 3.330 hain zuzen, are gehiago kontuan izanda Plantaciones Forestales, S.L.k sail landatuaren kudeaketa teknikorako eta zur nobleen garapenerako eta lanketarako ekarritako teknologian oinarritutako inbertsio-proiektu bat dela.

- 2007an, Echauri Forestal, S.L. sozietateak 534.822 euroko galerak kontabilizatu zituen. Sozietateko auditoreak esaten digunaren arabera, urte horretako eta aurreko urteetako baja bat da, ordeztutako zuhaitzen gastuari egotz dakiokena.

Landaketa-alorraren balioa 2012ko abenduaren 31n, 3.378.774 eurokoa zen, inbertitutakoa baino 534.822 euro txikiagoa hain zuzen.

25 urteren buruan zurak salduta aurreikusten ziren diru-sarrerak 100,8 milioi eurokoak ziren, Echauri Forestal, S.L. eratzeko aurkeztutako azterlan ekonomikoaren arabera, eta 8,05 milioi eurokoak, berriz, 2011ko abenduaren 31n aurkeztutako balorazio-txostenaren arabera. Txosten hau idazteko garaian, Gestión Ambiental de Navarra, S.A.k sail landatuaren balorazio-txosten bat eskatua du, 2013ko abenduaren 31ko egoerari buruzkoa.

IV.1.4. Echauri Forestal, S.L.ren finantzaketa

• Hurrengo taulan erakusten dira Echauri Forestal S.L. sozietateari egindako ekarpenak, zeinak, nagusiki gauzatu baitira sozietate hori kapitalizatze onetsitako kapital-handitzeen bidez eta Foru Administrazioetik jasotako diru-laguntzen bitartez.

Entitatea	Zenbatekoa
Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones, S.A.	1.008.589
Nafinco, S.A.	2.331.000
Plantaciones Forestales, S.L.	432.252
Foru Administrazioa (diru-laguntzak)	105.836
Guztira	3.877.676

Echauri Forestal, S.L.ren jarduera nagusiki Viveros S.A. eta Nafinco, S.A. sozietate publikoen bitartez finantzatu zen, kapital sozialari egindako ekarpenen bidez.

2004an, Viveros, S.A. sozietateak Nafincon zeukan partaidetza euro baten truke saldu zuen. Horri dagokionez, lau aukera aztertu ziren partaidetzen salmenta-prezioa zela-eta, eta Viveros, S.A.ren Administrazio Kontseiluak erabaki zuen bere partaidetzak Nafinco, S.A.ri transmititzea euro bateko prezio sinbolikoan. Horixe zen, hain zuzen, bazkide bakarraren, Nafarroako Gobernuaren, jarrera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak hartutako erabakiaren bidez erakutsitakoa.

Viveros, S.A. sozietateak 1.008.588 euroko kontabilitate-galera erregistratu zuen, eta Nafincok, berriz, erosketa partaidetzaren balio nominalaren arabera kontabilizatu zuen, eta aldi berean kapitaleko diru-laguntza elkartu bat erregistratu zuen, ordaindu ez zuen prezio kontabilizatua konpentsatze aldera.

Plantaciones Forestales, S.L.k 432.252 euro jarri zituen 2002an eta 2003an Echauri Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 30aren truke. 2004an, berriz, bere partaidetza F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri saldu zion 698.142 euroan. 2006an, Nafincok enpresa horri Echauri Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 30 erosi zion 688.545 euroan.

Echauri Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 30 egiten zuen erosketa horretan, Nafinco, S.A.k kontuan hartu zuen F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k Plantaciones Forestales, S.L.ri ordaindutako prezioa. Erosteko tenorean, Echauri Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 30aren kontabilitate-balio teorikoa 424.344 eurokoa zen.

IV.2. NAFINCO, S.A.K DELTOR GREEN, S.L.REKIN EGINDAKO FINANTZA-ERAGIKETAK

IV.2.1. Deltor Green, S.L.ren kapitalean parte hartzea

- Nafincok nekazaritza- eta basogintza-sektorean inbertitu zuen, batez ere zur nobleen proiektuetan, Deltor Green, S.L.ren kapitalean parte hartzearen bidez, eta, Nafinco, S.A.k bezala, Deltor Green, S.L.ren kapital sozialean ehuneko berean parte hartu zuen beste merkataritza-enpresa batekin batera, 2003tik hasi eta gaur arte.

- Deltor Green, S.L.k Nafincori bere negozio plana aurkeztu zion. Madrilen, Caceresen eta Nafarroan (horren barne dela Etxauriko sail landatua, non Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-enpresak parte hartzen baitzuen) hostozabalak landatzeko proiektuetan eta proiektu horien gauzapenean zentratua zegoen.

- Nafinco, S.A.ren Batzorde Exekutiboak aho batez erabaki zuen Deltor Green, S.L.ren kapitalean parte hartzea, epe ertainean ehuneko 25ean gehienez ere, eta aurreikusiz epe laburrean kapital sozialaren heren batera irits zitekeela.

Hala eta guztiz ere, Nafinco, S.A.k 2003., 2004. eta 2007. urteetan Deltor Green, S.L.ren kapitalaren ehuneko 50 bitarte izenpetu zuen, guztira 2.709.266 euro ordainduta; kopuru horretatik, 1.960.000 euro Deltor Green, S.L.ri egin eta kapitalizatutako maileguei zegozkien.

Nafincok, Deltor Green, S.L.n parte hartzen baitzuen, zeharka eta ehuneko berean, F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. enpresan ere parte hartzen zuen.

2012ko abenduaren 31n, Deltor Green, S.L.n egindako 2.709.266 euroko finantza-inbertsioa galdutzat eman zen, eta horretarako probisioak jarrita zeuden. 2005erako, Deltor Green, S.L.k galerak zeuzkan, bere filial F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k ondarean zeukan desoreka-egoeraren ondorioz.

IV.2.2. Deltor Green, S.L.ri egindako maileguak

2006an, Nafincok Deltor Green, S.L.ri 2.283.370 euroko maileguak eman zizkion, bere filial F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ren ondare-oreka berrezartzeko xedez.

2012ko abenduaren 31n, Nafincok ez dizkio Deltor Green, S.L.ri kobratu mailegu horien kapitalari dagokion 323.370 euroko kopurua eta interesei dagokien 74.789 euroko kopurua. Ordaintzeko dagoen kopuruaren guztizkotik, Nafincok 129.796 euroko probisioa jarri du.

IV.2.3. F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri emandako abalak.

2004tik 2006ra Nafincok F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren zorra abalatu zuen, 1.145.022 euroko zenbatekoan. 2012ko abenduaren 31n, abal horiek ezeztatuta zeuden.

Laburbilduz, honakoak izan dira Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.rekin eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.rekin egindako finantza-eragiketak:

	Deltor Green, S.L.	FI Excavaciones y Reforestaciones, S.L.
Kapitalean parte hartzea	2.709.266	
Emandako mailegu kapitalizatu gabeak	323.370	
Emandako abalak		1.145.022

Eragiketa horiek Nafinco, S.A.ri 2.839.062 euroko galerak ekarri zizkieten, guztiak ere F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. merkataritza-enpresari zegozkionak.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k, 2005eko ekitalditik, galera aipagarriak izan zituen, batez ere saldoen erregularizatzeen ondorioz, aktibatutako ikerketa- eta garapen-proiektuei baja emateak eraginda, hain zuzen ere ibilgetu ez-material bezala, saldo zordunen eta merkataritza-funtsaren berreskuratzeko moduko inbertsioen gisara, mantentzeko baldintzak betetzen ez zituztelako, besteak beste.

IV.3. FORU ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN SOZIETATE PUBLIKOEN BASOGINTZA ENPRESEKIKO KONTRATU-ERAGIKETAK.

Ez dago jasota kontratu-eragiketarik egin denik Deltor Green, S.L. enpresarekin.

Foru Administrazioak eta haren menpeko sozietateek F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.rekin, Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.rekin eta Plantaciones Forestales, S.L.rekin egindako kontratu-eragiketak 5.092.453 eurokoak izan ziren.

Honakoak izan ziren prestazioen esleipena hartu zuten entitateak:

	Baso-landaketak	F.I. Excavaciones y Reforestaciones	Foresta Mantenimiento	Guztira
Echauri Forestal	665.866	1.178.893	1.647.043	3.491.802
Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones		1.192.535		1.192.535
Foru Administrazioa		408.116		408.116
Guztira	665.866	2.779.544	1.647.043	5.092.453

IV.3.1. Echauri Forestal, S.L.

- 2003tik 2011ra, Echauri Forestal, S.L. enpresak zuzenean kontratatu zituen sail landatua mantentzeko eta egokitzeko lan guztiak, bai eta zuhaitz-landareen erosketa bera ere, Plantaciones Forestales, S.L., Excavaciones y Reforestaciones, S.L. eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L. enpresekin, 3.491.802 euro ordainduta.

Ez dago jasota inongo kontraturik Plantaciones Forestales, S.L.rekin eta F.I. Excavaciones Forestales S.L.rekin enpresa horiek 2003tik 2006ra emandako prestazioak araupetzeko.

- Landaketa-alorraren mantentzea, 2003tik 2011ra lau merkataritza-enpresa desberdinek egin zuten, honako prezioetan: 135.583 euro 2003an; 157.408 euro izan zen 2004tik 2006ra izandako batez besteko prezioa; 2007an mantentze-lanak kontratatu ziren, urtean 336.412 euro ordainduta, eta 2010ean eta 2011n 140.000 euroko kostua izan zuten ekitaldi bakoitzean.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L. enpresak, zeinak mantentze-lanak egin baitzituen 2004tik 2006ra, ehuneko 10 fakturatu zuen egindako lanengatik.

2012an, Etxauriko sail landatuaren mantentze-lanak Ganasa sozietate publikoak egin zituen, bere bitartekoeekin, eta kostua 60.131 eurokoa izan zen.

- Nabarmenezkoa da 2007an gastatutako kopurua, 1.095.828 euro hain zuzen. Hona haren kontzeptuak:

- 415.798 euro puntuan jartzeko eta egokitzeko, non, besteak beste, sartzen baita tantakako ureztaketa, lehendik dagoena ordeztzen duena. Lehenagoko sistemaren truke 242.434 euro ordaindu ziren 2003an. Hasiera batean, 2003an nagusiki, 601.978 euro gastatu ziren guztira, ureztaketa barne dela, sail landatua puntuan jartzeko eta egokitzeko jarduketetan.

- 343.618 euro 8.122 zuhaitz-landare erosteko.

- 336.412 euro sail landatuaren mantentzean; kopuru hori nabarmen handiagoa da 2003tik 2006ra ordaindutakoa baino, epe horretan batez besteko gastua urteko 60.650 eurokoa izan baita. Ez dago jasota 2007an mantentze-lanen kostua handitzearen arrazoia.

Aipatutako prestazioak arautzeko kontratuetan, egin beharreko lanak kontatzen dira, haiek neurtu edo banaka baloratu gabe, eta egin ez zen eta, horrenbestez, ordaindu ez zen proiektu bioteknologiko bat aipatzen da. Ez dira zehatzen, ezta ere, sail landatuaren alderdi produktiboe-tan izandako funtsezko aldaketak, zeinak, kontratuetan adierazitakoaren arabera, egin nahi baitira.

Ez dago teknikoki justifikatuta aparteko gastu horiei ekiteko beharra, ez eta 2003an erositako zuhaitzen ehuneko 35aren galera edo garapen eskasa ere.

IV.3.2. Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones, S.A.

Viveros, S.A. sozietateak F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. merkataritza-enpresarekin kontratatu zituen prestazioek 1.192.683 euro egin zuten 1998-2006 aldian, eta nagusiki basogintza-aren arloko hobekuntza-lanei zegozkien.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.rekin kontratatutako gastuen ehuneko 53ko lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu Viveros, S.A. sozietate publikoak kontratazioaren arloan aplikatze-koa den araudia bete zuela.

IV.3.3. Foru Administrazioa

2000tik 2004ra doan aldian, Ingurumen Departamentuak F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.rekin 408.116 euro egiten zuten obrak eta laguntzak kontratatu zituen.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.rekin kontratatutako gastuen ehuneko 69ko lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu Foru Administrazioak kontratazioaren arloan aplikatze-koa den araudia bete zuela.

IV.4. ONDORIO OROKORRA

Viveros, S.A. eta Nafinco, S.A. sozietate publikoak zur nobleen negozioan sartu ziren F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ren eta haren bazkide bakar Deltor Green, S.L.ren ekimenez. Enpresa horien jarduera nagusia basogintzako landaketen eta birlandaketekin lotuta dago.

Zur nobleen negozioan parte hartzearen eraginetarako, Viveros S.A. eta Nafinco, S.A. sozietate publikoek honako bi eragiketa paralelo eta aldi berekoak egin zituzten:

1. 2002ko abenduan Echaury Forestal, S.L. sozietate mistoa eratu eta finantzatu zuten, Etxauriko 70 hektareako finka batean zur nobleak landatu, garatu eta merkaturatzeko.

2. 2003ko martxoan, Deltor Green, S.L. enpresan parte hartu zuten, enpresa horren negozioan parte hartzeko. Negozio hori, funtsean, hostozabalen landaketan oinarrituta zegoen eta Deltor Green S.L.k aurkeztutako planaren arabera, irabaziak aurreikusten zituen 2003tik 2007ra bitarteko aldirako.

Bi eragiketen emaitzak honako hauek izan ziren:

1. Echaury Forestal, S.L.

Echaury Forestal, S.L.k 3.913.596 euro gastatu zituen zur nobleen sail landatuan 2002tik 2012ra. Gastu horien ehuneko 89 zuzenean esleitu zitzairen F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri, Plantaciones Forestales, S.L.ri eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.ri.

Echaury Forestal, S.L.ren jarduera honela finantzatu zen:

Finantzaketa	Zenbatekoa
Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones, S.A.	1.008.589
Nafinco, S.A.	2.331.000
Foru Administrazioaren diru-laguntzak	105.836
Plantaciones Forestales, S.L.	432.252
Finantzaketa, guztira	3.877.677

Echauri Forestal, S.L.ren jarduerak eta finantzaketak 884.092 euroko galerak¹ ekarri zizkien guztira sozietate publiko horiei, Echauri Forestal, S.L.k izan zituen emaitza negatiboaren ondorioz –emaitza horiek, izan ere, eragin zuten funts berekiak gutxitzea– eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ri Echauri Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 30 erosteko ordaindutako prezioaren ondorioz.

Zur nobleetan egindako inbertsioarengatik diru-sarrerak sortuko dira zuhaitzak kasuko adinera iristerakoan salduz. Jo zen 25 urte beharko zirela, eta horietatik jada 10 igaro dira.

2. Zur nobleen negozioan parte hartzea Deltor Green, S.L.ren bitartez.

Nafincok Deltor Green, S.L.k aurkeztutako zur nobleen negozioan parte hartu zuen, enpresa horren kapitalaren ehuneko 50 erositik. Partaidetza horrek berarekin ekarri zuen zeharka haren filial F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren ehuneko 50 eskuratzea.

Deltor Green S.L.n eta haren filialean egindako finantza-eragiketa honek honako emaitzak ekarri zizkion Nafinco, S.A.ri:

Eragiketak	Zenbatekoa	Aurreikusitako galera
Deltor Green, S.L.ren kapitalean parte hartzea	2.709.266	2.709.266
Deltor Green S.L.n egin eta kapitalizatu gabe dauden maileguak	323.370	129.796
Eragiketak, guztira	3.032.636	2.839.062

Laburbilduz, zur nobleetan egindako inbertsioak sozietate publikoei 3.723.154 euroko galerak ekarri dizkie (884.092 Echauri Forestal, S.L.rengatik eta 2.839.062 euro F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren egoera ekonomiko negatiboarengatik; sozietate hori Deltor Green, S.L.rena da osorik). Deltor Green, S.L. likidatzen ez den bitartean, ez dira ezagutuko enpresa horretan parte-hartzeak egiazki ekarri dituen emaitzak.

Zur nobleetan inbertitzeko egindako eragiketa horiek –alde batetik, Echauri Forestal, S.L. sozietate mistoa eratu eta hartan parte hartzea, eta, bestetik, Deltor Green, S.L.n parte hartzea– ez daude, gure ustez, behar bezala justifikatuta. Inbertitzeko erabakiak hatu eta urte gutxi bartzuen buruan, aurkeztutako azterlan eta planetan jasotako aurreikuspenak, merkataritza enpresen berek –Deltor Green, S.L., F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. eta Plantaciones Forestales, S.L.– aurkeztuak, ez ziren betetzen ari.

IV.4.1. Echauri Forestal, S.L. sozietate mistoa

2002an Viveros S.A. sozietate publikoak eta Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-enpresak Echauri Forestal, S.L. eratu zuten, zur nobleetan inbertitzeko. Inbertsio proiektu esperimentala izan zen, 25 urtera begirakoa, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bultzada eta babesa izan zituen. Ezohiko merkataritza-eragiketa da, administrazio publiko batentzat atipikoa, sozietate publikoen bitartez egina.

Sozietate mistoa Plantaciones Forestales S.L.rekin eratu bazen ere, egiazaturik dago F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. enpresak eta haren bazkide bakar Deltor Green, S.L.k partaidetza aktiboa izan zutela zur nobleen inbertsio proiektuan.

¹ Galera hori sortzen da partaidetza erosteko kostuaren –4.028.134 euro– (sozietate publikoek kapitalerako egindako ekarpenek osatua: Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones S.A.k 1.008.589 euro eta Nafinco, S.A.k 2.331.000 euro, eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri ordaindutako 688.545 euro) eta Echauri Forestal funts berekien –2010eko abenduaren 31n 3.144.042 euroko– artean dagoen diferentziatik.

Hurrengo taulan alderatzen ditugu sail landatua 2003tik 2012ra egindako gastuak 2002ko abenduan aurkeztutako proiektuan ageri zen errentagarritasun azterlanean aurreikusitakoekin.

	Proiektua	2012/12/31n exekutatuta dagoena	Desbideratzea
Lurra prestatzea, ureztaketa, kontrol sistemak eta abar.	1.079.969	1.022.213	-% 5
Landareak	674.973	974.154	% 44
Hasierako aurrekontua, guztira	1.754.942	1.996.367	% 14
Landaketaren mantentzea (2003-2012)	1.745.832	1.917.229	% 10
Mantentze-lanak, guztira	1.745.832	1.917.228	% 10
Landatutako alorrean 2003tik 2012ra egindako gastuak, guztira	3.500.774	3.913.596	% 12

2012ko abenduaren 31n, Etxauriko zur nobleen sail landatua kontabilitatearen ikuspuntutik 3.378.774 euroan dago baloratua, eta 2.244.344 euroan dago aseguratua.

Proiektu horren benetako emaitza zura saltzen den arte ezagutzerik ez badugu ere, kalkulaturako datu ekonomikoak askotarikoak izateak zalantzak sortzen ditu behin zuhaitzak adinera iritsita lortuko den zuraren bolumenari, prezioari eta errentagarritasunari buruz. Ondokoak dira datuak:

	Data	Zuraren salmenta- ren ondoriozko diru- sarrerak	Inbertsioaren errentagarritasuna
Errentagarritasun azterlana	2002ko ekaina	100,8 milioi	% 13
Landaketaren balorazio txostena,	2011ko abenduan	8,05 milioi	% 5,93

Datu horiek guztiak kalkulaturatu daude % 2ko inflazio eszenatoki berdinekin.

Landaketaren 2011ko abenduaren 31ko balorazio txostenak aurreikusten zuen espezieen ehuneko 71 kasuko adinera (25 urte) iritsiko zirela, eta jotzen zen 22.304 zuhaitz zeudela (31.432 ale erosi ziren).

2007an izan ezik, 2003tik 2012ra bitarteko ekitaldi guztietan ez dago jasota sail landatuaren jarraipen tekniko egin zenik.

Zur nobleen landaketaren eta garapenaren proiektu hau 2003an hasi zen, eta 2006an Nafinco, S.A.k bereganatu zuen guztiz, nahiz eta aurreikusita zegoen 25 urteko exekuzioan sortuko ziren finantzaketa-beharrak Echauri Forestal, S.L.ren bazkideek hartuko zituztela beren gain.

Echauri Forestal, S.L.ren bazkide pribatuei –Plantaciones Forestales S.L. eratu zen garaian eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L. gero– kudeaketa teknikoarekin lotutako eskubide politiko guztiak laga zitzaizkien, proiekturako zekarten teknologiaren argudioa erabilita. Hala eta guztiz ere, hiru urte baino gutxiago egon ziren Echauri Forestal, S.L.n.

Plantaciones Forestales, S.L.k 432.252 euro jarrita zituen Echauri Forestal, S.L.ren kapital sozialaren ehuneko 30eko partaidetza izateko, eta partaidetza hori gero F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri saldu zion 698.142 euroan. F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k partaidetza horrengatik ordaindu zuen balioa izan zen gero Nafinco, S.A.k kontuan hartu zuena Echauri Forestal, S.L.ren kapital sozialaren ehuneko 30aren truke 688.545 euro ordaintzeko.

IV.4.2. Zur nobleen negozioan parte hartzea Deltor Green, S.L.ren bitartez.

Echauri Forestal, S.L. eratu eta hiru hilabeteren buruan, Nafinco, S.A. sozietate publikoak erabaki zuen beste bazkide pribatu batzuekin batera, Deltor Green, S.L.k 2003-2007 urteetarako negozio plan batean aurkeztutako zur nobleen negozioan parte hartzea. Plan horretan aipatzen zen aldi horretako urte guztietan etekinak eta cash flow likido positiboa izan zirela. Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.ren negozioan izan beharreko partaidetza artikulatu zen haren kapital

soziala erostearen bidez, eta gero berarekin ekarri zuen enpresa publikoak zeharka parte hartzea F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren eta haren filial Deltor Green, S.L.ren kapitalean.

Ikusita zein zen F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ren egoera ekonomikoa, Nafinco S.A.k Deltor Green, S.L.ri, F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ren bazkide bakarrari, 2.533.370 euroko maileguak eman zizkion 2006an.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ren ondare-desorekak, zeuzkan galerei zor zitzaienak, eragina izan zuen haren bazkide bakar Deltor Green, S.L.rengan; izan ere, azken hori, 2005etik aurrera hasi zen emaitza negatiboak izaten, kobratzeko zeuzkan kontuetarako jarritako probisioek eta bere filialaren kapitalean parte-hartzeak eragindakoak.

Horrenbestez, jada 2005etik ez ziren betetzen ari Deltor Green, S.L.k Nafinco S.A.ri aurkeztu zion negozio planean aurreikusitako emaitza positiboak. Hala eta guztiz ere, 2007an, Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.ri emana zion maileguak kapitalizatzerakoan, haren kapitalaren ehuneko 11,61 eskuratu zuen, eta horrekin Deltor Green, S.L.ren kapitalaren ehuneko 50 edukitzera iritsi zen.

Hurrengo taulan alderatzen ditugu Deltor Green, S.L.ren negozio planean aurreikusitako emaitzak eta ekitaldi bakoitzean lortutakoak.

	Euroak, milioitan				
Zerga aurreko etekinak	2003	2004	2005	2006	2007
Negozio plana	0,64	1,13	1,52	2,03	2,60
Urteko kontuak	0,19	-0,42	-1,39	-3,77	-0,45

Horrenbestez, inongo ekitalditan ere ez ziren bete Deltor Greenek 2003-2007 aldirako aurkeztu zuen negozio planean aurreikusi ziren errentagarritasun aurreikuspenak.

IV.5. GOMENDIOAK

Honakoak dira Ganbera honek Foru Administrazioiko sozietate publikoek zur nobleetan egingdako inbertsioaren fiskalizazioan lortutako ondorioen harira emandako gomendioak:

- *Funts publikoak ekonomiaz, efizientziaz eta eraginkortasunez kudeatzea, horiexek baitira kudeaketa publiko orotan eskatzekoak diren printzipioak.*
- *Beren beharra dela-eta justifikatuta dauden inbertsio-proiektuetan inbertitzea.*
- *Exekutututako prestazioak kreditatzea, eta haiek behar besteko txosten teknikoetan oinarritzea, betiere haiek zehaztuz beren balorazioarekin eta kasuko egiaztagirien neurketarekin.*

Laburbilduz, foru sektore publikoak enpresa-proiektuen sustapenean eta garapenean inbertitzea erabakitzen duenean, ezarritako bide eta prozeduren bidez egin beharko du hori, eta nolahi ere kontuan hartu beharko ditu behar diren txosten tekniko eta ekonomiko sendoak, zeinek justifikatu beharko baitute egin beharreko inbertsioa eta bermatu beharko baitute hartutako erabakietan zorrotasun eta kaudimen maila handienak izatea.

Halaber, behin inbertitzeko erabakia hartuta, proiektuaren exekuzioaren kontrol eta gainbegiratze egokia bermatuko duten tresna eta prozedurak ezarri beharko dira, are gehiago aztertutakoa bezalako kasuetan, non partaidetza publikoa gehiengo baita.

V. FISKALIZATUTAKO ERAGIKETEN DESKRIBAPENA

Hurrengo ataletan deskribatzen dira fiskalizatutako eragiketak, fiskalizazioaren ondorioak oinarritzen dituztenak.

V.1. ECHAURI FORESTAL, S.L. SOZIETATEA

V.1.1. Echauri Forestal, S.L.ren eraketa

2002ko ekainaren 3a

Viveros, S.A. sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluak 2002ko uztailaren 3an eztabai-datu zuen genetikoki hobetutako zur nobleen negozioan sartzeko aukera, Nafarroako Gobernuak Etxaurin zeukan 70 hektareako finka batean inbertsio proiektu baten bitartez. Honakoak ziren inbertsioa dela-eta aurreikusitako ezaugarriak:

	Aurreikuspenak
Finkaren eta sail landatuaren egokitzea	1.923.239 euro
Urteko mantentzearen kostuak	180.303 eta 210.354 euro bitarte
Egiteko epea	25 urte
Kostua, guztira	7.212.145 euro
Inbertsioaren etekinaren tasa	% 13

Ez dago inongo azterlanik aurreko aurreikuspenak oinarritzen dituenik, eta aipatutako datan ez da informatzen proiektuan parte hartuko duen merkataritza-enpresari buruz.

Uztailaren 3an egin zen bileraren aktan, zenbait lerrokatutan, Nafarroako Gobernuak zur nobleen inbertsio honi ematen zion finantza-babesa aipatzen da.

Kontseiluko zazpi kideetatik bik beren desadostasuna adierazi zuten proiektuari buruz eta kontseiluak aho batez onduz zuten informazio gehiago behar zela haren bideragarritasun ekonomiko eta biologikoari buruz, bai eta hura gauzatzeko formalizatu beharreko harreman-motari buruz ere.

2002ko abuztuaren 30a

Egun horretan, Viveros, S.A. sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluari honako informazioa aurkeztu zitzaion:

- 2001eko apirilko dokumentu bat, sinadurarik ez duena, F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren logoarekin eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. partaide deneko joint ventureren logoarekin. Dokumentu hori –honako izenburua dauka: "Zur nobleen landaketak, genetikoki goi mailakoak diren zuhaitzekin"– aurkezpen orokor bat da, ez berariazkoa, Etxaurik aurreikusitako landaketari, hobekuntza genetikoki eta barietateen ezaugarri biologikoei buruzkoa,

Aipatutako agirian esaten da F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. izanen dela inbertsio-proiektuaren erantzulea.

- 2002ko ekaineko errentagarritasun azterlana Etxauriko sail landaturako. Horrek ere ez du sinadurarik, eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren logoa eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. enpresaren joint ventureren logoa dauka. 5.907.955 euroko inbertsio bat kalkulatu da, bazkideek guztiz finantzatua, eta haren etekin garbia 61,7 milioi eurokoa izanen da, 25 urteren buruan, zuraren salmentaren ondorioz.

- Txosten bat, non gomendatzen baita proiektua aurrera eramatea lankidetzaren hitzarmen baten bitartez, eta ez den gomendatzen sozietate misto bat eratzea.

2002ko urriaren 15a

Viveros, S.A. sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluak 2002ko urriaren 15ean, honako dokumentazioa aurkeztu zuen:

- 2002ko urriaren 4ko txosten bat, garai hartako Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Oihan arloko Esperimentazio eta Osasunaren Bulegoak egina, proiektuaren bideragarritasun teknikoari buruzkoa, non ondorioztatzen baita proiektua bideragarria dela, zeren eta teknologikoki ongi kalifikatutako espezieen zurak, segurtasunez, eskaria baitu eta prezio ona baitauka.

- F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. ren merkataritza-informazioa.

- Proiektuaren aurkako txosten bat, Viveros, S.A. sozietateko Administrazio Kontseiluko kide-etako batek aurkeztua, non aipatzen baita proiektuak interes pribatua duela, zalantza maila handia duela eta proiektuaren finantzaketak arriskuan jarriko duela Viveros, S.A. sozietatearen bideragarritasuna.

- Guztizko kostu ekonomikoa: 8.025.332 euro. Horren barnean sartzen da zur nobleak 70 hektareako azalera batean landatzeko inbertsio-proiektua eta finka osorako azpiegituren hobe-kuntza. Finkaren guztizko azalera 100 hektareakoa da.

Viveros, S.A. sozietate publikoko Administrazio Kontseiluko lehendakariak kontseiluko kideei proposatu zien proiektua onets zezaten, honako arrazoiak tarteko: Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren abala dauka, beste finka batean aurrekaria badago eta Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuko Mendi Zerbitzuko teknikarien aldeko iritzia lortu du.

Administrazio Kontseiluak, 2002ko urriaren 15ean, bost kontseilariren aldeko botoarekin eta aurkako bi botorekin, erabaki zuen baimenena ematea Viveros, S.A. sozietate publikoak kalitate handiko zur baliotsuetan oinarritutako proiektu batean inbertitzeko; horretarako, Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-enpresarekin batera, erantzukizun mugatuko sozietate bat eratu zuen.

Administrazio Kontseiluaren aurreko bilkuretan, ez zen ez aipatu, ez eman inongo informaziorik Plantaciones Forestales, S.L. enpresari buruz; bai, ordea, Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri buruz.

Viveros, S.A. sozietate publikoak 5.814.947 euro finantzatu zituen.

Viveros, S.A. sozietateko gerenteak, Administrazio Kontseiluko aktan ageri den bezala, aipatu zuen Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko Legeak behartzen duela lehia eta publikitate printzipioak errespetatzera, eta printzipio horiek urra litezkeela baldin eta inbertsioa egiten bazen izaera pribatuko entitate batekin batera sozietate bat eratzearen bitartez. Halaber, adierazi zuen sozietate publikoa ez zegoela bere funtsekin halako tamainako inbertsio bati ekiteko moduan.

Azkenik, Echaury Forestal, S.L. sozietate mistoko bazkide pribatua zuzenean hautatu zen.

Baldin eta eragiketa hau planteatzen bada zur nobleak ustiatzeko industria-proiektu batean inbertitzea balitz bezala, proiekturako dakarren teknologia dela-eta hautatutako bazkide pribatu batekin, ez lirateke aplikatzekoak izanen kontratazioari buruzko araudia eta printzipioak. Hala eta guztiz ere, funts publikoen kudeaketa egokiaren esparruan, exijitzekoa litzateke erabaki hori behar bezala arrazoitu eta justifikatzea.

2002ko abenduaren 12a

Egun horretan, Echaury Forestal, S.L. eratu zen, 300.000 euroko kapitalarekin; kopuru horren ehuneko 70 Viveros, S.A. sozietate publikoak jarri zuen eta gainerako ehuneko 30a, 90.000 euro, Plantaciones Forestales, S.L.k jarri zuen.

Echaury Forestal, S.L. eratzeke egun berean, haren bi kideek itun osagarrien eskritura bat izenpetu zuten. Itun horiek atzeraezinekoak izanen lirateke sail landatuko zuhaitzak garatzen eta saltzen ziren bitartean.

Itun horietan ezartzen da ezen Plantaciones Forestales, S.L. konpainiaren eskumen oso eta absolutua izanen dela sail landatuari buruzko kontrol teknikoa, erabaki teknikoak eta hartarako material begetalaren erabilera, administrazioa eta xedea. Horri dagokionez, Viveros, S.A. sozietate publikoak, Echauri Forestal, S.L.ren xede sozialaren garapen teknikoetan edo garapenean eragina duten eskubide politikoak laga zituen.

Halaber, Viveros, S.A.k Echauri Forestal, S.L.n daukan partaidetza Plantaciones Forestales, S.L.ren xede sozialarekin lotutako enpresei saltzeko muga bat ezarri zen.

Plantaciones Forestales S.L.k bere burua behartu zuen Echauri Forestal, S.L.ren kudeaketa teknikoan geratzera gutxienez ere sail landatuak zirauen denbora guztian, eta betebeharrak betetzen ez bazuen, bazkide izaera galduko zuen, eta zeuzkan partaidetzak auditore edo zentsore batek baloratutako prezio errealean ordainduko zitzaizkion, eta Viveros, S.A. sozietate publikoari kalte-ordainak ordainduko zitzaizkion; hain zuzen ere, Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-konpainiak berak egindako proiektu teknikoan kasuko urterako urteko mantentze-lanak direla-eta itundutako ordainsarien halako bi eginen zuten ordainsariak.

Itun osagarrien eskrituran, prezio itxi bat adosten da inbertsioetarako eta mantentze-gastuetarako, proiektuaren bizitzan zehar aldaezina izanen dena, aparteko arrazoi ezustekoak edo indar larrikoak gertatzen ez badira. Prezio hori erabakiko da antzeko proiektuetan ohikoak diren merkatu-prezioen arabera. Ehuneko 13,18ko barneko tasa bat kalkulatu da.

Plantaciones Forestales, S.L.k garapen proiektuan zehazten diren mantentze-lanak bete ezean, Viveros, S.A. sozietate publikoak aukera izanen du Plantaciones Forestales S.L.ren partaidetza prezio errealean erosteko, edo bere partaidetza Plantaciones Forestales S.L.ri balio errealean saltzeko.

Bi aukera horietatik edozeinetan, prezio erreala auditore baten balorazioaren arabera erabakiko da, eta ezinbestekoa izanen da mendi ingeniari baten txostena. Bi pertsona horiek aldeak ados jarrita izendatu beharko dira.

Echauri Forestal, S.L.ren bi bazkideetako batek itun osagarrian adostutako betebeharretatik edozein betetzen ez badu, beste bazkideari 300.506 euro ordaindu beharko dizkio.

V.1.2. Echauri Forestal, S.L.ren kapital sozialean izandako aldaketak

Eratu eta gero erabakitako Echauri Forestal, S.L.ren partaidetza sozialen salmentak eta kapital handitzeak aztertuko ditugu orain.

Hurrengo taulan, Echauri Forestal, S.L.ren funts berekiak eta bazkideak erakusten ditugu, hura 2002an sortu zenetik 2011n xurgatua izan zen artekoak:

Urtea	Kapitala, guztira	Kapitala handitzea	Jaulkipen prima	Bazkideen ekarpena	Bazkideak
2002	300.000			% 70, GAVR (1)	% 30, Plantaciones Forestales, S.L.
2003	300.000			% 70, GAVR	% 30, Plantaciones Forestales, S.L.
2004	1.440.841	1.140.841		% 70, GAVR (2)	% 30 F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.
2005	1.440.841			% 70 NAFINCO	% 30 F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.
2006	1.440.841				% 100, NAFINCO
2007	1.865.841	425.000	1.275.000		% 100, NAFINCO
2008	1.865.841		1.275.000		% 100, NAFINCO
2009	1.865.841		1.275.000		% 100, NAFINCO
2010	1.865.841		1.275.000	631.000	% 100, NAFINCO

(1) GAVR: Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones

(2) 2004ko ekainaren 2tik, Echauri Forestal, S.L.ren kapitalaren % 70 Nafinco, S.A.rena da.

Echauri Forestal, S.L.k honako kapital handitzeak erabaki zituen:

a) 2004ko martxoaren 9an, kapitala 1.140.841 euro handitu zuen, bazkideek 2003an eta 2004an emandako kredituak (798.589 euro Viveros, S.A.k eta 342.252 euro Plantaciones Forestales, S.L.k) kapitalizatzeke.

b) 2007an, Echauri Forestal, S.L.k kapitala 425.000 euro handitu zuen, 1.275.000 euroko lehen jaulkipen batekin, 2006tik bere bazkide bakar Nafincok emandako kredituak konpentsatze aldera –guztira, 1.700.000 euro eman zizkion–.

2002an eratu zenetik 2011n azkeneko arte Echauri Forestal S.L.ren bazkideak aldatzen joan ziren, kapital sozialaren partaidetzen honako salerosketa-eragiketara hauen arabera:

a) 2004ko apirilaren 30ean, Echauri Forestal, S.L. eratu eta urtebete eta lau hilabete geroago, haren bazkide pribatu Plantaciones Forestales, S.L.k bere partaidetzan 698.142 euroan saldu zion F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. merkataritza-sozietateari. Plantaciones Forestales S.L.k Echauri Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 30 zeukan; harengatik, 432.252 euro ordaindu zituen.

Plantaciones Forestales, S.L.k 2004ko apirilaren 5ean Viveros, S.A. sozietate publikoari jakinarazi zion Echauri Forestal, S.L.ren partaidetza F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri eskualdatu nahi ziola. Viveros, S.A. uko egin zion hura erosteko eskubideari.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k atxikipen akta bat eman zuen, non guztiz izenpezen eta bere egiten baititu Echauri Forestal, S.L. eratu zuten bazkideen artean egindako itun osagarriak.

b) 2004ko ekainaren 2an, Viveros, S.A. sozietate publikoak Echauri Forestal, S.L.ren kapitalean zeukan ehuneko 70eko partaidetza, 1.008.589 euroan baloratua, Nafinco, S.A. sozietate publikoari eskualdatu zion, euro baten truke; horrenbestez, 1.008.588 euroko galera erregistratu zuen.

Viveros, S.A. sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2004ko otsailaren 4an egindako bilera-
ren aktan jasotzen da 2002an Echauri Forestal, S.L.k kapitala handitu zuela, baina 2003an eta 2004an "aurrekontuaren itxurak zailtasun handiak agertzen dituela eta finantza-zailtasuneko eszenatoki bat dagoela ondorioztatzen dela". Hori dela eta, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak jakinarazten du onena litzatekeela Nafinco, S.A. bezalako arrisku-kapitaleko sozietate batek proiektuan parte hartzea.

Viveros, S.A.ren Administrazio Kontseiluak 2004ko martxoaren 31n egindako azkeneko bilera-
ran, lau aukera aurkeztu ziren Echauri Forestal, S.L.ren partaidetzak Viveros S.A. sozietate publikoaren eskuetatik Nafinco S.A. sozietate publikoaren eskuetara aldatzeko prezioari buruz. Aktan adierazitakoaren arabera, aukera horiek, "behin Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Echauri Forestal, S.L.ren partaidetza sozialak eskualdatzearen alde zegoela adierazita", 2004ko otsailaren 18an Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan egin zen bilera planteatu ziren. Bilera horretan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko langileak eta Viveros, S.A. eta Nafinco, S.A. sozietate publikoetako langileak egon ziren. Hona aukera horiek:

1- Viveros, S.A. sozietate publikoak Nafinco, S.A.ri Echauri Forestal, S.L.n dauzkan partaidetzak saltzea, balio nominalean daukaten prezioaren arabera.

2.- Viveros, S.A. sozietate publikoak Nafinco, S.A.ri Echauri Forestal, S.L.n dauzkan partaidetzak saltzea, balio nominalean daukaten prezioaren arabera, baina epe geroratu bat adostuta.

3. Viveros, S.A. sozietate publikoak Nafinco, S.A.ri Echauri Forestal, S.L.n dauzkan partaidetzak saltzea euro bateko prezio sinbolikoan, eta Viveros, S.A.n gertatutako galera borondatezko erreserbekin konpentsatzea.

4.- Viveros, S.A. sozietate publikoak bere kapital soziala gutxitzea, bere bazkide bakarrari (Nafarroako Gobernuak) itzulita Echauri Forestal, S.L.n dauzkan partaidetzak, eta gero, Nafarroako Gobernuak haiek Nafinco, S.A.ri transmititzea kapital handitze baten bitartez.

Aipatzen da bazkide bakarraren, Nafarroako Gobernuaren, jarrera dela Viveros, S.A.k Nafinco, S.A.ri euro baten truke transmititzea Echaury Forestal, S.L.n dauzkan partaidetzak, eta horri dagokionez, Viveros, S.A.ren Administrazio Kontseiluko kideek gehiengoz, aurkako boto bakarrarekin, onetsi zuten partaidetza horiek adierazitako prezioan eskualdatzea.

c) 2006ko martxoaren 29an, Nafinco, S.A.ren Batzorde Exekutiboak aho batez onetsi zuen Echaury Forestal, S.L.ren akzio guztiak erostea, ikusita Deltor Green S.L.ren filial F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.n likidezia injektatzeko beharra zegoela, eta Echaury Forestal, S.L.ren akzioak hirugarrenei saltzea saiheste aldera. F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k Nafinco, S.A. sozietate publikoari 778.000 euroan saldu zion Echaury Forestal, S.L.ren kapitalean zeukan ehuneko 30eko partaidetza. Kontratuan ageri denaren arabera, prezioa finkatu zen F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k partaidetza sozialak erosteko balioaren arabera (partaidetza horiek Plantaciones Forestales S.L.ri 698.142 euroan erosiak zizkion).

2006ko azaroaren 7an, kontratua zuzendu zen, partaidetzen baliotik 89.455 euro kentzeko; kopuru hori zegokion F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k Echaury Forestal S.L. sozietatearekin zeukan kredituari, zeren eta diru-ekarpenak eginak baitzituen sozietate horren gastuak ordaintzeko, hain zuzen ere bere partaidetza zela-eta zegokion ehuneko 30aren arabera.

V.1.3. Echaury Forestal, S.L.ren inbertsioak

- Echaury Forestal, S.L.k sail landatuan, 2003tik 2012ra 3.913.596 euro gastatu zituen BEZa kenduta, honako kontzeptuengatik eta honako enpresekin:

Kontzeptua	Baso-landaketak	F.I. Excavaciones y Reforestaciones	Foresta Mantenimiento	Empresa A.L	Ganasa	Beste enpresa batzuk	Guztira
Zuhaitz-landareak		630.535	343.618				974.153
Landatutakoaren mantentzea	135.583	472.225	887.627	360.880	60.131	783	1.917.229
Puntuan jartzea eta egokitzea	530.283	71.695	415.798				1.017.776
Dokumentazioa eta obra zuzendaritza		4.438					4.438
Guztira	665.866	1.178.893	1.647.043	360.880	60.131	783	3.913.596

Gastu horiek honako urte hauetan egin ziren:

Urtea	Baso-landaketak	F.I. Excavaciones y Reforestaciones	Foresta Mantenimiento	A.L. Enpresa	Ganasa	Beste enpresa batzuk	Guztira
2003	665.866	680.714					1.346.580
2004		193.721					193.721
2005		180.087					180.087
2006		124.371					124.371
2007			1.095.828				1.095.828
2008			351.215				351.215
2009			200.000	80.000		422	280.422
2010				139.943		361	140.304
2011				140.937			140.937
2012					60.131		60.131
Guztira	665.866	1.178.893	1.647.043	360.880	60.131	783	3.913.596

• Echauri Forestal, S.L.k sail landatuaren gastu guztiak, bai erositako zuhaitz-landareak, bai mantentze, egokitze eta ureztatze-lanak ere, besteak beste, sail landatuaren balio handiagotzat hartzen zituen, eta urtero izakinen kontuan kontabilizatzen zituen.

2007an, sail landatuaren kontabilitate-balioa 534.822 euroan jaitsi zen. Galeratzat hartu ziren horiek.

Galerak kalkulatu ziren 2007ko abenduaren 31n kontabilizatutako sail landatuaren balioa alderatuz honako irizpideak aplikatzearen emaitza diren kopuruen baturarekin:

a) 2007an zeuden 22.660 zuhaitz-landareak 42,31 euroan baloratu ziren. Prezio horretan, 8.122 zuhaitz-landare erosi ziren 2007an. 2002an, 23.310 zuhaitz-landare erosi ziren, ale bakoitzeko 27,05 euro ordainduta.

b) Landaketarako behar diren inbertsioen exekuzio materialaren kostua hektarea bakoitzeko 19.578 euro izan zen, kanpoko enpresa batek egindako balorazio-txostenaren arabera. 75 hektarea hartu ziren erreferentziatzat.

Landaketaren mantentze-lanak

Landaketaren mantentze-lanen guztizko kostua 2003tik 2012ra doan aldian, 1.916.446 eurokoa izan zen, BEZik gabe. Honako enpresek egin zituzten lan horiek:

Urtea	Zenbatekoa	Enpresa
2003	135.583	Plantaciones Forestales, S.L.
2004	172.205	F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.
2005	175.649	F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.
2006	124.371	F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.
2007	336.412	Foresta Mantenimiento Plantaciones, S.L.
2008	351.215	Foresta Mantenimiento Plantaciones, S.L.
2009	200.000	Foresta Mantenimiento Plantaciones, S.L.
2009	80.000	A.L. merkataritza-enpresa
2010	139.943	A.L. merkataritza-enpresa
2011	140.937	A.L. merkataritza-enpresa
2012	60.131	Ganasa
Guztira	1.916.446(1)	

(1) Ez dira sartu 2009tik 2010era beste enpresa batzuek egindako mantentze-lanak, 783 eurokoak

Landaketaren mantentze-lana, 2003an, Plantaciones Forestales, S.L. enpresak egin zuen, 135.583 euroren truke; 2004tik 2006ra, berriz, mantentze-lan horiek F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri esleitu zitzaizkion, urteko 157.408 euroko gastuarekin, batez beste. Ez dago jasota inongo kontraturik egin zenik aurreko bi enpresekin.

Plantaciones Forestales, S.L.k aurkeztutako fakturretan, ez dira zehazten egindako jarduketak, eta 2003ko mantentzerako aurrekontua aipatzen da. Dokumentu hori, ordea, ez dugu jaso.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k aurkeztutako fakturretan, aipatzen da honako lanak egin direla: ongarria eta herbizida botatzea, mailak egitea, inaustea, izurrien aurkako tratamenduak eta langile gastuak. Ez dira zehazten ez exekutatutako unitateak, ez unitate bakoitzeko prezioa ere.

F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k ehuneko 10 aplikatu zuen kudeaketa zela-eta. Ehuneko hori jada aurreikusita zegoen 5.907.955 euro inbertitzeko errentagarritasun azterlanean. Azterlan hori Echauri Forestal, S.L. eratzeko aurkeztu zen, eta hartan, mantentze gastuen

artean, ehuneko 10a ageri zen, management kontzeptuan F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.rekin egindako kontratuarengatik.

2007ko martxoaren 20an, Echauri Forestal, S.L.k kontratu bat sinatu zuen Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.rekin, sail landatuaren mantentze-lanak egiteko, urteko 336.412 euroko prezioan, BEZik gabe. Kontratu hori, zeinaren iraupena zuhaitzak bota arterako ezarri baitzen, 2009an deuseztatu zen.

Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L. enpresari dagokionez, Nafinco, S.A.ren Batzorde Exekutiboak, 2006ko urriaren 25eko bileran, aktan jasotakoaren arabera, hitz egin zuen Nafinco, S.A.k Foresta taldearekin harremanak izateko zeukan interesari buruz, sail landatua talde horren eta Amerikako inbertsio funts baten arteko salmentan sartzen ahalegintzeko. 2007ko apirilaren 25ean, jakinarazi zen Etxauriko finkaren salmenta ezin izan zela gauzatu.

2006ko abenduan, Nafinco, S.A.ren Batzorde Exekutiboak jakinarazi zuen ezen F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k sail landatuaren mantentze-lanak egiteari utzi ondoren, Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.ren eskaintza bat jaso zela. Enpresa horrek, halaber, bere burua eskaini zuen azterlan bioteknologiko bat egiteko eta sail landatua ondoko finketara zabaltzeko. Nafinco, S.A.k ezezkoa eman zien proposamen horiei. 2007ko urtarrilean, Batzorde Exekutiboak erabaki zuen Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L. enpresaren mantentze-lanetarako eskaintza onartzea. Ez zen halakorik jaso aktan, ez eta onartutako proposamenaren xehetasunik edo zenbatekorik ere.

2008ko maiatzean, Batzorde Exekutiboan proposatu zen beste urtebetez luzatzea Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L. enpresarekiko mantentze kontratua, nahiz eta prezio altukoa izan, zeren eta, adierazitakoaren arabera, finka saltzeko moduko baldintzetan uztea lortuko baitzuen. 2009ko ekainean, Batzorde Exekutiboak aztertu zuen ezinezkoa zela urteko mantentze-kontratuarekin jarraitzea Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.rekin, eta kontratua amaitzea eta beste kontratazio bat egiteko prozedura murriztu bat izapidetzea erabaki zen.

2009ko abuztuaren 1ean, Echauri Forestal, S.L.k zuzenean kontratu zuen merkataritza-enpresa batekin sail landatuaren mantentzea, 192.000 euroko prezioan, BEZik, gabe, zuhaitzak bota arteraino.

2012ko urtarrilaren 2an, Ganasako zuzendari kudeatzaileak aurreko enpresari jakinarazi zion ezen etorkizunean bateratutako antzinako sozietateen jarduerak sozietate bateratu horren bitartekoekin eginen zirela, eta inguruabar horren arabera kontratua deuseztatu zen data horretatik aurrera.

2012an, Etxauriko sail landatuaren mantentze-lanak Ganasa sozietate publikoak egin zituen, bere bitartekoekin, eta kostua 60.131 eurokoa izan zen.

Zuhaitz-landareen erosketak

2002an F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. enpresari honako espezieetako 23.310 zuhaitz-landare erosi zitzaizkion:

	Kopurua	Ale bakarraren prezioa, BEZik gabe	Guztira (BEZik gabe)
Intxaurrondo beltz amerikarra	9.990	27,05	270.229
Gereziondo beltz amerikarra	9.990	27,05	270.229
Haritz gorri amerikarra	1.665	27,05	45.038
Haritz zuri amerikarra	1.665	27,05	45.038
Guztira	23.310		630.534

2007an, Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.ri 8.122 zuhaitz-landare erosi zitzaizkion, honako espezieetakoak:

	Kopurua	Ale bakarraren prezioa, BEZik gabe	Guztira (BEZik gabe)
Intxaurren beltz amerikarra	4.932	42,31	208.658
Gereziendo beltz amerikarra	3.190	42,31	134.960
Guztira	8.122		343.618

8.122 zuhaitz-landareak, kontratuan ageri denaren arabera, erosi ziren hutsak zituzten edo garapen eskasa zuten zuhaitzak ordeztzeko. Ez da justifikatzen 2003an landatutako unitateen ehuneko 35aren erosketak.

Kontratuan ezarritakoaren aurka, espedientean ez dago zuhaitz-landareak entregatu izanaren albarani ageri.

Finka egokitzea

2007an, Foresta Mantenimiento S.L.k kontratu bat sinatu zuen Echauri Forestal, S.L.rekin, sail landatua puntuan jarri eta egokitzeko. Kontratu horren prezioa 415.798 eurokoa izan zen. Kontratuaren arabera, Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.k honako jarduketak egingen zituen: ureztaketa egokitzea, puntuan jartzeko lanak (instalazio hidraulikoen hondarrak kentzea, ildo-bizkarrak egitea, azpiak nibelatzea, hegalak garbitzea, zuzenketa organikoa, funtseko ongarritzea, mailak egitea eta ongarritze organikoak) eta hutsak konpontzea. Ez dira zehazten aipatu diren lanetako bakoitzean exekutatu diren unitateak, ez eta prezioak ere.

Ureztaketari dagokionez, kontratuan esaten da tantakako ureztatze sistema bat garatuko dela "aurrekoa ordeztzeko". Aurreko horretatik, berriz, 242.434 euro ordaindu zitzaizkion Plantaciones Forestales, S.L. enpresari 2003an.

Kontratuan esaten da Echauri Forestal, S.L.k aldaketa garrantzitsuak egin nahi dituela sail landatuaren alderdi produktiboetan. Ez dago jasota aldaketa horiek zein diren.

Kontratuan ezarritakoaren aurka, espedientean ez da ageri Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.k egindako lanak jaso izateari buruzko akta.

V.1.4. Echauri Forestal, S.L.ren finantzaketa

Hurrengo taulan, Echauri Forestal, S.L.k jaso zituen kapital-ekarpenak erakusten ditugu:

Urtea	Gestión Ambiental Vive-ros y Repoblaciones	Plantaciones Fo-restales S.L.	Nafinco	Guztira
(2002) Eratzea	210.000	90.000		300.000
2003	663.000	256.695		919.695
2004	135.589	85.557	142.947	364.092
2005			43.854	43.854
2006			205.128	205.128
2007			1.308.071	1.308.071
2008			285.000	285.000
2009			200.000	200.000
2010			146.000	146.000
Guztira	1.008.589	432.252	2.331.000	3.771.840

• Echauri Forestal, S.L.ren inbertsioak eta gastuak, nagusiki, Viveros, S.A. eta Nafinco, S.A. sozietate publikoek finantzatu zituzten.

2004an, Viveros, S.A.k Nafinco, S.A.ri euro baten truke saldu zion Echaury Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 70eko partaidetza, zeina 1.008.589 euro jarrita eskuratu baitzuen.

- Plantaciones Forestales, S.L.k 2002tik 2004ra guztira 432.252 euro jarri zituen, eta 2004an bere partaidetza 698.142 euroan saldu zuen.

2006ko martxoaren 29an, Nafinco, S.A.k Echaury Forestal, S.L.ren ehuneko 30eko partaidetza erosi zuen, hain zuen ere Plantaciones Forestales, S.L.k 2004an F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri saldu ziona. Horrenbestez, data horretatik 2010era arte, Nafinco Echaury Forestal, S.L.ren bazkide bakarra izan zen.

- Echaury Forestal, S.L.k 2004an, 2005ean eta 2006an Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jaso zituen, 105.836 euro egiten zutenak.

Diru-laguntzak eskatzeko aurkeztutako dokumentazioak huts tekniko eta administratibo ugari dauzka.

Ingurumen Departamentuak ikuskatu zituen Echaury Forestal, S.L.k diru-laguntza kobratzeko fakturatutako lanak, eta adierazi zuen ez zituela eginak aurkeztutako ziurtagirietan adierazitako lan guztiak edo haien exekuzioan hutsak bazeudela. Halaber, Echaury Forestal, S.L.k aurkeztutako aurrekontuak egokitu zituen Departamentuak diru-laguntzaren xede ziren jardueretan aplikatu ohi dituen modulu edo tarifen arabera. Horrenbestez, diruz laguntzeko modukoak ziren gastuak 526.668 eurotik –horixe eskatu baitzuen sozietateak– 214.053 eurora murriztu zituen.

Echaury Forestal, S.L.k 4.438 euro ordaindu zizkion F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri eta 6.832 euro profesional bati –une hartan Deltor Green, S.L.ren, F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ren y Plantaciones Forestales S.L.ren ahaldua zen profesional hori–, diru-laguntza eskatzeko dokumentazio teknikoaren eta obra zuzendaritzaren kontzeptuan.

Nabarmentzekoa da ezen, Departamentuari aurkeztutako mantentze-proiektuan, urteko mantentze gastuaren kontzeptuan 50.000 euro ageri direla 2005etik 2009ra bitarteko aldian. Kopuru hori, ordea, aldi horretan gastatutakoa baino askoz ere gutxiago da.

Diru-laguntza eskatu zuen Echaury Forestal, S.L.ren ordezkaria egin beharreko gastuen proiektua idatzi eta obra zuzendu zuen pertsona bera da, eta gainera obra hori egin zuen enpresa-koa da.

Egiaztatu dugu F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren data bereko, zenbaki bereko eta guztizko kopuru bereko bi faktura badaudela. Echaury Forestal, S.L.k kontabilizatutako fakturan, kontzeptuaren azalpenean, aipatzen da 43.051 euroko mantentze-lanei dagokiela; Departamentuan aurkeztutako fakturan, ordea, mantentze gastuak 37.051 eurokoak dira, eta 6.000 euro fakturatzeko dira proiektuarengatik eta obra zuzendaritzarengatik, nahiz eta kontzeptu hori diruz laguntzekoak diren gastuen barruan sartzen den.

- Nafinco, S.A.k Echaury Forestal, S.L.ri 74.821 euroko mailegu bat eman zion 2001ean. Mailegu hori 2002an amortizatu zen.

V.1.5. Zur nobleen sail landatuaren balorazioa

Aurrez adierazi dugun bezala, Echaury Forestal, S.L.k zuhaitz-landareen erosketak, finkaren egokitze-lanak eta sail landatuaren mantentze-gastuak sail landatuaren balioari egozten dizkio, eta izakinen kontu batean kontabilizatzen dira.

Zur nobleen sail landatuaren honako balorazio-txostenak helarazi dizkigute:

a) 2004ko martxoaren 30eko txostena, Viveros, S.A. sozietate publikoko administrazio kontseiluko partaidea izan zen profesional batek 2002an eta 2003an egina.

Txosten horretan aipatzen da finka egoera onean dagoela, eta landatu zenetik bi hazkunde izan dituela.

Txosten horretan baloratzen da soilik Echaury Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 30aren balioa, eta jotzen da partaidetza horrek 469.224 euroko balioa duela.

b) 2006ko urtarrilaren 30ean Deltor Green, S.L. enpresak egindako txostena, proiektuari buruz eta sail landatuak 2003-2005 urteetan izandako garapenari buruz.

Txosten horretan azaltzen da 2001ean, landaketaren proiektua egin eta Echauri Forestal, S.L. eratu aurretik, finka ikuskatu zela eta haren bideragarritasuna egiaztatu zutela.

Ziurtasunez berresten da erabilitako materiala kalitatezkoa dela. Jotzen da 2005ean ehuneko 2,4ko hutsak daudela. Jotzen da 2005ean ehuneko 2,4ko hutsak daudela.

Oin bizien kopuru hori 2002an erositako 23.310 landareekin alderatuta, hutsen portzentajea ehuneko 8koa da, eta hori ez dator bat txostenean emandako datuekin.

c) Nafinco, S.A. sozietate publikoak enkargatutako txostenak.

2008ko martxoaren 27ko honako bi txosten daude, kanpoko enpresa batek guztira 4.524 euro ordainduta egindakoak:

c.1. Inbertsioa 1.481.850 euroan kalkulatzeko duen txosten bat, non jotzen baita exekuzio materialaren kostua 19.758 eurokoa izan dela hektarea bakoitzeko eta 75 hektareatan jardun dela, eta ez 70ean. Exekuzio materialaren kostuan, intxaurrendoa eta gerezioko amerikarra landatze aldera finka eraldatzeko behar diren inbertsio guztiak sartzen dira (obrak eta azpiegiturak, lur-saila egokitzea, landatzea, segurtasuna eta osasuna, kalitatearen kontrola, proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritza). Echauri Forestal, S.L.k balorazio hori erabili zuen 534.822 euroko galerak erregistratzeko 2007an.

c.2. Ustiaketaren guztizko kostuak hektarea bakoitzeko 173.069 eurokoak direla jotzen duen txostena. 75 hektarea hartzen dira kontuan, eta jotzen da zuhaitzak 2028an botako direla. Nagusiki, honakoak jasotzen dira: ureztaketa, ongarritzea, tratamendu fitosanitarioak, inausketa eta zehatzea, lurzoruen mantentzea, proiektuak eta zuzendaritza teknikoak.

Inbertsioari buruzko balorazio txostenean ageri den bezala, 22.660 zuhaitz-landare daude, erdiak intxaurrendoa eta beste erdiak gereziokoak.

d) 2011ko abenduaren 31ko txostena.

2011n, Echauri Forestal, S.L. xurgatzearen karietara, Ganasa sozietate publikoko zuzendari kudeatzaileak Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Mendi Ingeniarien Eskola Teknikoari txosten bat eskatu zion hostozabal nobleen sail landatuaren 2011ko abenduaren 31ko egoerari buruz.

Txostenak 10.003 euroko kostua izan zuen, eta 2002an eta 2003an Viveros, S.A. sozietate publikoko administrazio kontseiluko partaidea izan zen profesional berak egin zuen.

Sail landatua 3.226.209 euroan baloratu zuen, eta jo zuen 22.304 zuhaitz-ale zeudela (14.290 intxaurrendoa eta 8.014 gerezioko). Aipatzen da proiektuak izan duen zortzi urteko bizialdian zehar baja batzuk egon direla, hasieran landatutako ale kopuruaren aldean, eta lurzoruen iragazgaitasun eskasa dela gerezioko landareen heriotzaren arrazoiak. Esaten da 2007an izandako huts guztiak, bai gereziokoena, bai intxaurrendoa, intxaurrendoa landareekin berrezarri zirela, eta, horrenbestez, gereziokoek zortzi urte dituztela baina intxaurrendoa adin desberdinetakoak direla.

Baieztape horiek kontraesanean daude faktura batek esaten duenarekin, zeren eta hartan ageri baita 2007an 8.122 zuhaitz-landare erosi zirela, eta haietatik ehuneko 39, 3.190 landare hain zuzen, gereziokoak zirela.

Halaber esaten da berrezarritako zuhaitz-landareak (8.122) sekula ez direla iritsiko ekonomiki interesgarriak diren tamainetara; hori dela eta, hutsak ez betetzeko gomendatzen du.

Behin betiko bajak 326 zuhaitz-landareenak direla jotzen du; hasierako kopurua 22.630 landareena izan zen. Datu horiek ere kontraesanean daude fakturretan ageri direnekin. Izan ere, haien arabera, 23.310 zuhaitz-landare erosi ziren 2002an eta 8.122, berriz, 2007an.

Mantentze-kostuak urteko 56.000 eurokoak direla jotzen da.

Kalkulatu da 8.048.167 euro eskuratuko direla zura bere adinera iristen denean salduta. Kalkulu hori egin da Estatu Batuetako ekialdean erregistratutako prezioekin, zeren eta esaten baitute Espainian ez dagoela merkatu garaturik intxaurrendoa eta gereziondoaren zurerako.

2002an Echauri Forestal, S.L. eratzeko aurkeztu zen azterlan batean, jo zen zura salduta 100,8 milioi euro eskuratuko zirela.

V.2. NAFINCO, S.A.K DELTOR GREEN, S.L.REKIN EGINDAKO FINANTZA-ERAGIKETAK

V.2.1. Nafinco, S.A.ren partaidetza Deltor Green, S.L.ren kapital sozialean.

Nafinco, S.A.k honako partaidetzak erosi zituen Deltor Green, S.L.k onetsi zituen kapital-handitzeetan:

Data	Parte-hartze kopurua	Balio nominala	Parte-hartzeen araberako lehen jaulkipena	Eskuratze-prezioa	Deltor Green, S.L.ren kapitalean parte hartzearen ehunekoa
2003ko uztailaren 1a	500	6,02	992	499.010	33,33
2004ko urriaren 20a	375	667,35	0	250.256	38,89
2007ko azaroaren 20a	3.500	60,00	500	1.960.000	50
Guztira	3.500			2.709.266	50

2003an, Deltor Green, S.L.k negozio plan bat aurkeztu zuen, non adierazten baitzuen ber helburu nagusietako bat zela genetikoki hobetutako zuhaitz hostozabalak landatzea. Deltor Green, S.L.k hostozabalak saltzeko daukan sistema oinarritzen da landaketa sustatzen duen sozietatearen gutxieneko zuzeneko partaidetzan. Deltor Green, S.L.k bere buruarentzat segurtatzen du kontrol teknikoa, zuhaitzen teknologia babesteko eta mantentze-lanak landaketak irauten duen 25 urteetan egiteko.

2003an, zergak ordaindu aurretik, fakturazioaren ehuneko 20,3ko etekina aurreikusten zuen. Etekin hori gorantz joanean zen urtero 2007an fakturazioaren ehuneko 28,9koa izateraino.

Negozio plan horretan, Deltor Green, S.L.k, bere lantalde teknikoa gauzatzen ari den hostozabalen landaketa-proiektuen artean, Etxauriko 70 hektareako sail landatua sartzen du, Nafarroako Gobernuak sustatua, "tradizionalen osagarriak diren laboreak bilatzeko daukan estrategiaren barruan". 2003an, Etxaurin zur nobleak landatzeko proiektu guztiak Plantaciones Forestales, S.L. enpresak egin zituen, zeren eta une hartan Echauri Forestal, S.L. sozietate mistoko sozio pribatua baitzen.

Nafinco, S.A.ren zuzendari kudeatzaileak sozietate publikoaren Batzorde Exekutiboari azaldu zizkion aurkeztutako proiektutik zein faktore ziren erakargarriak: errentagarritasuna, ehundura produktiboa dibertsifikatzen laguntzea (basogintzaren defizita), nekazaritza eta basogintzako errentak handitzea, Nafarroako ubidearen sinergieiz baliatzeko aukera, "unitate ekologikoa" aplikatzeko tresna izatea eta basogintza-teknologia berria aplikatzea.

Nafinco, S.A.ren Batzorde Exekutiboak, 2003ko martxoaren 26an, aho batez erabaki zuen Deltor Green, S.L.ren kapitalean parte hartzea, ehuneko 25eko mugara arte.-

2003ko ekainaren 11n, Nafinco, S.A.ren Batzorde Exekutiboak erabaki zuen ezen, epe ertaineko helburua baldin bazen ere ehuneko 25eko partaidetza izatea, epe laburrean beharrezko izan litekeela kapitalaren herenera iristea.

Hartara, 2003ko uztailaren 1ean, Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.ren kapitalaren ehuneko 33,33 eskuratu zuen, eta administrazio kontseiluan parte hartzera sartu zen, bi ordezkarekin, bi sozietateen artean izenpetutako ituna betetze aldera.

Deltor Green, S.L.ren partaidetzen balio nominala 2003an 6,02 eurokoa izatetik 2004an 667,35 eurokoa izatera handitu zen, enpresak 2004ko urriaren 20an kapital handitze bat egin baitzuen, 2003ko uztailaren 1eko kapital handitzearen jaulkipenaren primaren kargura.

Deltor Green, S.L.ren 2004ko urriko kapital handitzean, Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.ren 375 partaidetza eskuratu zituen, eta horrek berarekin ekarri zuen bere partaidetza ehuneko 33,33tik ehuneko 38,89ra handitzea.

2006ko abenduaren 31n, Deltor Green, S.L.k, Nafinco, S.A.ren kontuen arabera, 5.199.579 euroko galerak zeuzkan metatuta.

2007an, Deltor Green, S.L.k akordeoi-eragiketa bat egin zuen; hau da, bere kapital soziala 1.501.537,5 eurotik zero eurora jaitsi zuen, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko, eta, aldi berean, 60 euroko 7.000 partaidetzatan handitu zuen, partaidetza bakoitzeko 500 euroko jaulkipen primarekin. Nafinco, S.A.k 3.500 partaidetza eskuratu zituen, 1.960.000 euroko guztizko prezioan. Nafinco, S.A.k kopuru hori konpentsatu zuen Deltor Green, S.L.ri 2006an F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. enpresa birfinantzatzeko lagatako kredituekin.

Eragiketa horrekin, Nafinco S.A.k Deltor Green, S.L.ren kapitalaren ehuneko 50eraino eskuratu zuen eta, horrenbestez, 2007tik aurrera, Nafinco, S.A.k eta 2011tik Sodena, S.L.k Deltor Green, S.L.ren kapitalaren ehuneko 50 daukate. Partaidetza horrek y 2.709.266 euroko balioa duela jotzen da, eta erabateko probisioa dauka.

Deltor Green, S.L.k 2004tik 2009ra bitarteko ekitaldietan galerak eta funts bereki negatiboak dauzka, zeinek eragiten baitute partaidetzaren balio teorikoa negatiboa izatea. Horrenbestez, sozietate publikoek –Nafinco 2010era arte eta Sodena, S.L. 2011tik aurrera– Deltor Green, S.L.n duten partaidetzaren kontabilitate-balioa zero da.

Deltor Green, S.L.ren emaitza negatiboak sortzen dira enpresa horrek aurrekontu-defizita dela-eta jarri behar izan dituen probisioengatik eta bere menpeko F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k kobratzeko dauzkan saldoetatik.

V.2.2. Emandako mailegu eta abalak

Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.ri honako partaidetza-maileguak eman zizkion:

Data	Emandako zenbatekoa	Ordaindutako kopurua	Itzulitako kopurua	Ordaintzeko dagoen kapitala
2006ko maiatzaren 23a	1.283.370	1.283.370	1.283.370 (1)	0
2006ko azaroaren 27a	1.250.000	1.000.000	676.630 (1)	323.370
Guztira	2.533.370	2.283.370	1.960.000	323.370

(1) Nafinco, S.A.k izenpetutako Deltor Green, S.L.ren 2007-11-20ko kapital handitzearen kargurako itzulketa.

2006an, Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.ri bi partaidetza-mailegu eman zizkion, guztira 2.533.370 euro egiten zutenak, F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren ondare-orekaren berrezarpena finantzatzeko.

Kontratuan adostutako baldintzen arabera, bi maileguak bi urteren buruan kuota bakarrean amortizatuko dira, eta ehuneko biko interesa sortuko dute, gehi emaitzen araberrako aldagai bat.

Deltor Green, S.L.k 2007ko urriaren 20an egin zuen kapital handitzean, zeinean Nafinco, S.A.k 1.960.000 partaidetzetatik 3.500 partaidetza eskuratu baitzituen, Nafinco, S.A.k ordaindutakoa konpentsatu zen Deltor Green, S.L. zor zizkion kredituak itzultzearekin: 1.283.370 euro, 2006ko maiatzaren 23an emanak, eta 676.630 euro, urte bereko azaroan emandako 1.250.000 euroko mailegutik heldutakoak. Mailegu horri dagokionez, Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.ri emandako guztizkotik 1.000.000 euro ordaindu zizkion.

Horrenbestez, gaur den egunean, Deltor Green, S.L.k Sodena, S.L.ri 323.370 euro zor dizkio, gehi interesei dagozkien 74.789 euro; hau da, guztira, 398.159 euro zor dizkio.

Gainera, Nafinco, S.A.k F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ri 1.145.022 euroko zorra abalatu zion. Abal horiek jada deuseztatuta daude.

V.3. FORU ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN SOZIETATE PUBLIKOEN BASOGINTZA ENPRESEKIKO KONTRATU-ERAGIKETAK.

Foru Administrazioak eta haren erakunde autonomoek eta sozietate publikoek igorritako informazioaren arabera, ez dago jasota Deltor Green, S.L.rekin kontratu-eragiketarik dagoenik.

Foru Administrazioak eta haren menpeko sozietateek F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.rekin, Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.rekin eta Plantaciones Forestales, S.L.rekin dauzkaten kontratu-eragiketek 5.092.601 euro egin zuten, eta honakoei dagozkie:

Entitatea	Baso-landaketak	F.I. Excavaciones y Reforestaciones	Foresta Mantenimiento	Guztira
Echauri Forestal	665.866	1.178.893	1.647.043	3.491.802
Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones		1.192.683		1.192.683
Foru Administrazioa		408.116		408.116
Guztira	665.866	2.779.692	1.647.043	5.092.601

V.3.1. Echauri Forestal, S.L.rekiko kontratu-eragiketak

Plantaciones Forestales, S.L., F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L. enpresek Echauri Forestal, S.L.ri 3.491.802 euro fakturatu zizkionten zuhaitz-landareak erostearen kontzeptuan, finka egokitzearen kontzeptuan eta sail landatuen mantentze-lanen kontzeptuan. Prestazio horiek guztiak, txosten honetako V.I.3 atalean aztertu direnak, zuzenean esleitu ziren:

V.3.2. Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones enpresarekiko kontratu-eragiketak

Viveros, S.A.k F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.rekin guztira 1.192.683 euro egiten zuten prestazioak kontratatu zituen, honako kontzeptuak direla eta:

Xedea	Urteak	Zenbatekoa
Uliberrin eta Arizkurenen su-ebakiak egin eta egokitzea	1998-1999	110.403
San Gregorio-Garesen baso-berritze lanak egitea	1999	12.972
Mongalles mendian basozaintza prebentiboa egitea	1999	28.692
Arraitz Kontzejuko Ollaregi basoa lehengoratzea	2000	12.534
Legate mendiko Zapitor parajea lehengoratzea	2000-2001	114.930
Urbasako baso-pista hobetzea	2000	46.355
Atarrabia eta Safelen aldeetan landare-lehengoratzea, Arlegin eta Getze Galarren	2000-2001	23.952
Basozaintza prebentiboa eta hobetzekoa Iriberrri Jaurerriko mendian	2001	150.243
Nafarroako Oihan Ondareko Aitzuriaga, Biorreta, Orosa eta Zanduetako baso-pistak hobetzea.	2001	5.495
Orkoieneren eta Itzan estalki begetala lehengoratzea eta herri-lurretako erosioa kontrolatzea	2001-2002	15.076
Estalki begetala lehengoratzea eta erosioa kontrolatzea Campolasierpen (Tutera)	2001-2002	26.320
Torralba del Rion abandonatutako zabortegia lehengoratzea	2003	30.124
Nafarroako Oihan Ondarearen baso-berritzea Otsagainen	2003	8.702
Oroz Betelun eta Artzin oihan-azpiegiturak hobetzea.	2003	138.360
Oroz Betelun eta Artzin oihan-azpiegiturak hobetzea. Proiektua handitzea	2004	215.446
Lizarragako portuan barrera kanadar bat jartzea	2003	7.790
Etxauriko finkan I+G azpiegiturak hobetzea Ureztatze sistema jartzea	2003	70.777
Nafarroako Oihan Ondarearen baso-berritzea Otsagainen	2004	17.310
Aragoi eta Arga ibaietako azpien ingurumen-lehengoratzea Caparrosen	2005	32.024
Tuterako Soto de los Tetones aldea lehengoratzeko proiektua	2005-2006	125.178
Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones enpresarekiko kontratuak, guztira		1.192.683

Viveros, S.A. sozietate publikoak F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.rekin kontratatutako gastuen ehuneko 53ren lagin baten lizitazioa aztertu dugu. Honako kontratu hauei dagozkie:

Xedea	Kontratuaren data	Esleipenaren zenbatekoa	Esleipenaren baja	Aitortutako betebeharra
Iriberriko jaurerrian basozaintza prebentiboa egitea	1999	45.546	% 3	45.485
Iriberriko jaurerrian basozaintza prebentiboa egitea. II. fasea.	2000	104.757		104.757
Oroz Betelun eta Artzin oihan-azpiegiturak hobetzea.	2003	133.068	% 10	138.360
Oroz Betelun eta Artzin oihan-azpiegiturak hobetzea. Proiektua handitzea	2003	209.035	% 3	215.446
Tuterako Soto de los Tetones aldea lehengoratzeko proiektua	2005	90.982	% 30	125.178

Viveros, S.A. sozietate publikoak aplikatzekoa den kontratazio publikoaren arloko araudia bete zuen kontratu horiek F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri esleitzerakoan. Gastuak justifikatuta eta onetsita daude.

V.3.3. Foru Administrazioarekiko kontratu-eragiketak

Foru Administrazioak F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri 2000tik 2004ra esleitu zizkion kontratuak 408.116 euro egin zuten, eta honakoei zegozkien:

Xedea	Urteak	Zenbatekoa
Bidegorrietako bidea hobetzea	2000	10.422
Falcesko makaldiaren ingurumen auditoria eta kudeaketa	2001	6.623
Elkoatzen su-ebakia egitea	2003	31.778
Erron su-ebakia egitea	2002-2004	60.983
Ustaize-lizien su-ebakia egitea	2003-2004	282.986
Jaberriko baso-pista egokitzea	2003-2004	14.454
Etxaurin atzera-palarekin lanak egitea	2004	870
Foru administrazioaren kontratuak, guztira		408.116

Ustaize-lizien su-ebakia egiteko kontratua berrikusi dugu. Foru Administrazioak F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri esleitu zion lan hori eta enpresa horrekin kontratatutako gastu guztien ehuneko 69 egiten du.

Xedea	Kontratuaren data	Esleipenaren zenbatekoa	Esleipenaren baja	Aitortutako betebeharra
Ustaize-lizien su-ebakia egitea	2003	283.588	% 6	282.986

Obra horren esleipenean kontratuei buruzko legedia bete dela egiaztatu dugu. Obraziurtagiriak justifikatuta eta onetsita daude.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2014ko apirilaren 11n
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas



1. eranskina. Argazkiak



BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**Gestión Ambiental de Navarra, S.A.k egindako alegazioak**

LEHENA.- 9. or.- IV.1.3 Echauri Forestal S.L.ren jarduera

– Egindako lanen euskarri diren fakturei dagokienez, behin-behineko txostenean honakoa esaten da:

"ez dira zehazten, baloratzen eta neurtzen egindako lanak, eta ez dago jasota haiei buruzko adostasun edo onarpenik".

Horri dagokionez, esan beharra dago proiektua ezartzeko fasean (2003), fakturen zenbatekoa bat datorrela proiektu teknikoan ageri diren kostuekin eta Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A.k inbertsioa egiteko oinarri gisa baliatu zen errentagarritasun-azterlanean jasotakoekin.

– Zuhaitz-landareen prezioari dagokionez, honakoa dio behin-behineko txostenak:

"2002ko abenduan, Echauri Forestal, S.L.k F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri (Deltor Green, S.L.ren filiala), genetikoki hobetutako 23.310 zuhaitz-landare erosi zizkion, ale bakoitzeko 27,05 euro ordainduta..."

Halaber, nabarmentzen da 2003an zuhaitz-landare bakoitzaren kostua 27,05 eurokoa dela, eta horixe dela bai proiektu teknikoan, bai inbertsioa egiteko oinarri gisa baliatu zen errentagarritasun azterlanean ageri den prezioa. Dokumentu horiek aztertuak izan ziren Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A.ren eta Echauri Forestal, S.L.ren administrazio organoetan.

BIGARRENA.- 13. or.-IV.3.1. Echauri Forestal

– Sail landatuaren mantentze- eta egokitze-lanei dagokienez, behin-behineko txostenak honakoa dio:

"2003tik 2011ra, Echauri Forestal, S.L. enpresak zuzenean kontratatu zituen sail landatua mantentzeko eta egokitzeko lan guztiak, bai eta zuhaitz-landareen erosketa bera ere, Plantaciones Forestales, S.L., Excavaciones y Reforestaciones, S.L. eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L. enpresekin, 3.491.802 euro ordainduta."

Horri dagokionez, esan beharra dago 2003an eta 2004ko zati batean, Plantaciones Forestales, S.L. entitateak formalizatutako bazkideen itunaren esparruan, merkataritza-enpresa horrek sail landatuaren kontrol teknikoa hartu zuela bere gain; horrenbestez, bera zen sail landatuen mantentze- eta egokitzelanak egin behar zituena.

– Sail landatuaren mantentze-lanei dagokienez, behin-behineko txostenak honakoa dio:

Sail landatuaren mantentzea, 2003tik 2011ra lau enpresa desberdinek egin zuten, honako prezioetan: 135.583 euro 2003an; 157.408 euro izan zen 2004tik 2006ra izandako batez besteko prezioa; 2007an mantentze-lanak kontratatu ziren, urtean 336.412 euro ordainduta, eta 2010ean eta 2011n 140.000 euroko kostua izan zuten ekitaldi bakoitzean.

[..]

2012an, Etxauriko sail landatuaren mantentze-lanak Ganasa sozietate publikoak egin zituen, bere bitartekoekin, eta kostua 60.131 eurokoa izan zen.

Horri dagokionez, adierazi beharra dago ezen mantentze-jardueren edukia ez dela bera urte guztietan, sail landatuaren bilakaeraren eta haren beharren arabera. Ohikoa da lehenengo urteetan kontzeptu horrengatik kostua oraingoa baino handiagoa izatea. Horri dagokionez, jakitera eman beharra dago 2014rako aurreikusita dagoela, Gestión Ambiental de Navarra, S.A.ren teknikariek egindako txosten teknikoari jarraituz, gutxi gora-behera 75.000 euro gastatzea.

HIRUGARRENA.- 15. or. BEZa. Ondorio orokorra

Behin-behineko txostenak honakoa dio:

"Echauri Forestal, S.L.k 3.913.596 euro gastatu zituen zur nobleen sail landatuan 2002tik 2012ra. Gastu horien ehuneko 89 zuzenean esleitu zitzairen F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri, Plantaciones Forestales, S.L.ri eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.ri."

Horri dagokionez, aurretik esan dugun bezalaxe, adierazi beharra dago 2003an eta 2004ko zati batean, Plantaciones Forestales, S.L. entitateak formalizatutako bazkideen itunaren esparruan, merkatari-tza-enpresa horrek sail landatuaren kontrol tekniko hartu zuela bere gain; horrenbestez, bera zen sail landatuen mantentze- eta egokitze-lanak egin behar zituena.

LAUGARRENA.- Sail landatuaren aseguruak

Gaur egun sozietateak honako aseguruak dauzka kontratatuta Mapfre konpainiarekin:

Intxaurrondoetarako eta gereziendoetarako aseguruak, suteen, tximisten eta ez tandem ondoriozko kalteen estaldurarekin.

Ureztatze ekipoetarako, itxitura perimetralerako eta kontrol sistemetarako aseguruak, suteen, tximisten eta ez tandem ondoriozko kalteen estaldurarekin.

Iruñean, 2014ko apirilaren 8an

Andrés Sola Ollo, ahalduna.

Sodenak aurkeztutako alegazioak**1.- 4. or. *Sozietate publikoek egindako jarduketei...***

Gure ustez, iturri gisa aipatu beharko litzuke sektorean izen handia duten enpresek egindako auditoria-txostenak, zeren eta bestela ematen baitu halakorik ez zela egiten. Funtsezkoa izan zen auditorez aldatzea eta zeregin horretan Ernst Youngekin hastea, Nafincok berariaz hura eskatuta, zeren eta une horretatik aurrera informazio fidagarria izaten hasi baikin. Are gehiago kontrol handiagoa gomendatzen denean.

Eskatzen dugu aipa daitezela sozietate bakoitzak emandako auditoria txosten guztiak eta haien datak.

2.- 4. or. *Eman dizkiguten dokumentuen eta egindako gastu batzuen agiri bidezko justifikazio eskasaren artean kontraesan batzuk badaude, eta horrek muga bat ezartzen digu hartutako erabakien eta fakturatutako jarduketaren exekuzioaren arazoizkotasunari buruz iritzia emateko.*

Eskatzen dugu adieraz dadila nolako zailtasuna dagoen orain dela 5 urte baino gehiago ez jarduerarik, ez langilerik izan ez duten sozietateen dokumentazioa aurkezteko.

3.- 5. or. *Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones, S.A.... zur nobleen merkataritza jardueran inbertitu zuten...*

Eskatzen dugu sar dadila "beste inbertsio-egile pribatu batzuekin batera", zeren eta bestela irudi bailezake bakarrik egin zuela, eta ez zen hala izan.

4.- 5. or. *Sozietate mistoko kide guztiak elkarren artean itun parasozial batzuk... eta kontuan hartuta teknologia bazkide pribatuak jartzen zuela...*

Eskatzen dugu esan dadila bazkideek teknologia horren lizentziadunak zirela, eta, horrenbestez, Purdueko Unibertsitatearekiko (Estatu Batuak) kontratuaren bidez teknologiaren jabeak eta aplikatzaileak zirela, baina ez asmatzaileak.

5.- 5. or. *Gastuen ehuneko 89 F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.,...*

Eskatzen dugu esan dadila sozietate horrek sekula ez zuela langile berekirik izan eta bere gastu ia guztiak sail landatuaren mantentzeari zegozkiola; horrenbestez, gastu horien ehuneko 89 kontratatu egin ziren.

6.- 5. or. *Inbertitutako guztiaren ehuneko 85 Viveros, S.A. eta Nafinco, S.A. sozietate...*

Eskatzen dugu esan dadila bi bazkide egon ziren bitartean, bakoitzak bere zatia finantzatu zuela (70/30). Une horretatik aurrera, Nafinco bazkide bakarra zian zen, eta berak finantzatu zuen sozietate guztiz. Inbertitutako guztiaren ehuneko 85 Viveros, S.A. eta Nafinco, S.A. sozietate...

7.- 6. or. *"2003ko martxoan, Echauri Forestal, S.L. eratu eta hiru hilabetera, Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L. merkataritza-enpresak onetsitako kapital-handitzearen ehuneko 33,33 izenpetu zuen".*

Honako esaldia sar dadila eskatzen dugu: "nahiz eta hasieran % 25eko parte-hartzea onetsi zen, % 33,33 eskuratu zuen, aurreikusita zegoen laugarren bazkidea erretiratu zelako.

8.- 6. or. *...jartzen zuten teknologiarengatik hautatutako bazkide pribatuek...*

Eskatzen dugu esan dadila bazkideek teknologia horren lizentziadunak zirela, eta, horrenbestez, Purdueko Unibertsitatearekiko (Estatu Batuak) kontratuaren bidez teknologiaren jabeak eta aplikatzaileak zirela, baina ez asmatzaileak.

9.- 8. or. *Viveros, S.A. sozietatearen bileretako aktetan, bai Echauri Forestal, S.L. eratu aurretik egindakoetan, bai enpresa hori sortzeko egindakoetan ere, argi geratzen da Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zur nobleen proiektu honi ematen dion bultzada eta babes ekonomikoa.*

Eskatzen dugu "argi geratzen da" hitzen ordeztu, "esaten da, jasotzen da, aipatzen da, erreferentzia jasotzen da..." bezalako hitzak jartzea. Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren babes ekonomikoa gobernu batek egiten dituen inbertsio guztien atzean dago (ezinbestez), eta ez kasu honetan bereziki (ez dago horren lekukotasunik: jakinarazpenak eta abar). Aktetan sozietate bakarraren aipamena ego-

teak soilik ziurtasuna ematen du adierazpen horri buruz, baina ez du esan nahi ezinbestez egiazkoa denik.

10.- 8. or. *Viveros, S.A. sozietateak, zeinak partaidetzaren % 70 baitzeukan eta baso-jardueren kudeaketan 20 urte baino gehiagoko esperientzia baitzuen, besteak beste ikerketa eta garapen teknologikoaren arloan.*

Eskatzen dugu aipamen hori kentzeko, zeren eta lehenengo unetik Viverosek adierazi baitzuen ez zuela teknologia hori ezagutzen, eta eskaintza ugari eta behin eta berriz egin zitzaizkion arren, Viverosek sekula ez zuen lagundu nahi izan Etxauriko sail landatuaren mantentzean.

11.- 9. or. *Gastuen ehuneko 89...*

Ikus 5. oharra

12.- 9. or. *...eta ez dago jasota haiei buruzko adostasun edo onarpenik.*

Honakoa sartzeko eskatzen dugu: ...edo haien onespenik, nahiz eta berez F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k aurkeztutako proiektuaren eta Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.k aurkeztutako eskaintzaren araberakoak izan.

13.- 9. or. *Hiru urte baino gutxiagoan, zekarren teknologia zela-eta hautatutako bazkide pribatuak jada ez zuen partaidetzarik Echauri Forestal, S.L.n.*

Eskatzen dugu aipa dadila teknologia hori oinarrituta zegoela Estatu Batuek zuhaitz-landareen gainean zituzten eskubideetan eta Espainiako lurralde batzuei buruzko egokitzean; halaber, parte hartzeari uzteko arrazoia aipatzeko eskatzen dugu: Sozietatearen finantza-gaitasun deuseza.

14.- 9. or. *Zuhaitz-landaren prezioari dagokionez... ale bakoitzeko 42,3 euro ordainduta.*

Eskatzen dugu aipa dadila ezin dela ezarri hornitzaileetako bakoitzari erositako zuhaitz-landareen kalitate genetikoa alderagarria den.

15.- 10. or. *...zur nobleen garapenerako eta lanketarako ekarritako teknologian oinarritutako inbertsio-proiektu bat dela.*

Eskatzen dugu esan dadila zuhaitzak izaki bizidunak direla eta ez dutela beti modu berean erantzuten, eta, horrenbestez, ez dagoela normalizat jo daitekeen hutsen portzentajerik. Horri gehitu behar zaio ezen hain zuzen ere landaketaren fasean, uholde larri bat izan zela, eta horrek eragin zuela huts kopurua handitzea eta oin askoren sustraitzea zaildu zuela. Halaber, adierazi beharra dago ezen sail landatuaren bizitzan zehar, zenbait aldiz lur-saguek eraso egin dietela landareei; izan ere, zuhaitzen sustraiak marraskatzen dituzte, haien hazkundera mugatuz eta hiltzera ere iritsiz.

16.- 11. or. *...nagusiki Viveros, S.A. eta Nafinco, S.A. sozietate publikoen bitartez finantzatu zen...*

Ikus 6. oharra

17.- 11. or. *Viveros, S.A. sozietateak 1.008.588 euroko kontabilitate-galera...*

Eskatzen dugu adieraz dadila eragiketak ez ziela inolako galerarik ekarri sozietate publikoen multzoari.

18.- 12. or.: *F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k, 2005eko ekitalditik, galera aipagarriak izan zituen, batez ere saldoen erregularizatzeen ondorioz, aktibatutako ikerketa- eta garapen-proiektuei baja emateak eraginda, hain zuzen ere ibilgetu ez-material bezala, saldo zordunen eta merkataritza-funtsaren berreskuratzeko moduko inbertsioen gisara, mantentzeko baldintzak betetzen ez zituztelako, besteak beste.*

Eskatzen dugu aipa dadila galeren iturri nagusia langileentzako kalte-ordainak eta hartzekodun guztiei ordaintzea izan zirela, eta hori guztia bazkideek eta Kontseiluak hartu zuten erabakitik heldu zela, hain zuzen ere borondatezko likidaziora jotzeko erabakia, kiebrara jo beharrean (langileentzat askoz kaltegarriagoa zen azken hori).

Bestalde, ez du ezer ere esaten gaiaren funtsari buruz, eta funts hori kudeaketa txarra da: ardua zuten kudeatzaileek ez zituzten inolaz ere bete Kontseiluari aurkeztutako salmenta-aurreikuspenak, zeren eta bestela beste gauza bati buruz ariko baikinenez hizketan.

19.- 13. or. Sail landatuaren mantentzea, 2003tik 2011ra...

Eskatzen dugu aipa dadila ezen mantentze-lanen prezioak oso askotarikoak izan diren bezala zerbitzua ematen zuten enpresen artean, ez dagoela jasota haiek guztiek emandako zerbitzua uniformea izan zenik, ez kopuruan, ez kalitatean.

20.- 15. or.: *Echauri Forestal, S.L.k 3.913.596 euro gastatu zituen zur nobleen sail landatuan 2002tik 2012ra. Gastuen ehuneko 89...*

Ikus 5. oharra

21.- 15. or., amaieran. *Echauri Forestal, S.L.ren jarduerak eta finantzaketak 884.092 euroko galerak ekarri zizkien guztira sozietate publiko horiei, Echauri Forestal, S.L.k izan zituen emaitza negatiboen ondorioz –emaitza horiek, izan ere, eragin zuten funts berekiak gutxitzea– eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ri Echauri Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 30 erosteko ordaindutako prezioaren ondorioz.*

Eskatzen dugu aipa dadila galera horiek behin-behinekoak direla, zeren eta ez baitakigu zein izanen den amaierako salmenta-prezioa. Prezio-doikuntzei buruz edo behin-behineko galerei buruz hitz egin beharko litzateke.

22.- 16. or. *Laburbilduz, zur nobleetan egindako inbertsioak sozietate publikoei 3.723.154 euroko galerak ekarri dizkie.*

Honakoa aipatzeko eskatzen dugu: Laburbilduz, zur nobleetan egindako inbertsioak sozietate publikoei 2.839.092 euroko galerak ekarri dizkie, F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren egoera ekonomikoaren ondorioz;

izan ere, Deltor Green, S.L.rena da guztiz. Deltor Green, S.L. eta Echauri Forestal, S.L. likidatzen ez diren bitartean, ez dira ezagutuko enpresa horien parte-hartzearen bidez egiazki lortutako emaitzak. Hori dela eta, behin-behinekotzat jo behar dira.

23.- 16. or. Zur nobleetan inbertitzeko egindako eragiketa horiek –alde batetik, Echauri Forestal, S.L. sozietate mistoa eratu eta hartan parte hartzea, eta, bestetik, Deltor Green, S.L.n parte hartzea– ez daude, gure ustez, behar bezala justifikatuta. Inbertitzeko erabakiak hatu eta urte gutxi batzuen buruan, aurkeztutako azterlan eta planetan jasotako aurreikuspenak, merkataritza enpresek berek – Deltor Green, S.L.,

F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. eta Plantaciones Forestales, S.L.– aurkeztuak, ez ziren betetzen ari.

Zur nobleen landaketa sustatzea 1997-2007 urteetarako Nafarroako Oihan Planaren garapenean aurreikusitako ekintzen artean zegoen.

Behin eta berriz esan izan da Nafarroan proiektu esperimentalak zela, zeren eta Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubiderako zeukan Ureztaketa Planak jasotzen baitzuen hektarea berrien erabileraren zati bat zuzentzeko izatea, dela zur nobleetarako, dela biomasarako. Biomasa proiektuak sozietate publikoen bitartez sustatu ziren.

Izan ere, zur nobleekin (haritzak, gaztainondoak, gereziak...) egindako baso-berritzeak Nafarroako Gobernuak bultzatutako ekintza-ildo bat izan zen urte haietan, eta toki administrazioek eta partikularrek ongi hartu zuten hori. Horretarako, gainera, Europaren finantzaketa eduki zen; horrek, izan ere, haren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa abalatzeko zuten.

24.- 16. or. *2002an Viveros S.A. sozietate publikoak eta Plantaciones Forestales, S.L. merkataritza-enpresak Echauri Forestal, S.L. eratu zuten, zur nobleetan inbertitzeko. Inbertsio proiektu esperimentalak izan zen, 25 urtera begirakoa, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bultzada eta babesa izan zituen. Ezohiko merkataritza-eragiketa da, administrazio publiko batentzat atipikoa, sozietate publikoen bitartez egina.*

Eskatzen dugu "bultzada eta babesa izan zituen" hitzak kentzeko. Inbertsio guztiek Ekonomia Departamentuaren babesa izaten dute. Inbertsio guztiek Ekonomia Departamentuaren babesa izaten dute. "Nafarroako Gobernuaren bultzada eta babesa izan zituen, kasuko kontseilaritzaren bitartez adierazita".

Eskatzen dugu honako hitzak aldatzeko: "Ezohiko merkataritza-eragiketa da, administrazio publiko batentzat atipikoa..."; izan ere, halako eragiketak ohikoak eta tipikoak dira (Sodenan, Nafinco, Sprinen, Tracasan eta abarretan baziren), baldin eta enpresa publikoen bitartez egiten badira, besteak beste horrexetarako baitaude.

25.- 17. or. *Zur nobleen landaketaren eta garapenaren proiektu hau 2003an hasi zen, eta 2006an Nafinco, S.A.k bereganatu zuen guztiz, nahiz eta aurreikusita zegoen 25 urteko exekuzioan sortuko ziren finantzaketa-beharrak Echauri Forestal, S.L.ren bazkideek hartuko zituztela beren gain.*

Eskatzen dugu azken lerrokada hori kentzeko, edo adierazteko Nafincok haren finantzaketa bere gain guztiz hartzeko arrazoia: bazkideen kiebra. Zer zen hobea, proiektua likidatzea edo haren finantzaketa guztiz hartzea? Nola babesten zen hobeki interes publikoa?

26.- 17/18. or. *Proiekturako zekarten teknologiaren argudioa erabilita.*

Eskatzen dugu esan dadila bazkideek teknologia horren lizentziadunak zirela, eta, horrenbestez, Purdueko Unibertsitatearekiko (Estatu Batuak) kontratuaren bidez teknologiaren jabeak eta aplikatzaileak zirela, baina ez asmatzaileak.

27.- 18. or. *Ikusita zein zen F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ren egoera ekonomikoa, Nafinco S.A.k Deltor Green, S.L.ri, F.I. Excavaciones y Reforestaciones S.L.ren bazkide bakarrari, 2.533.370 euroko maileguak eman zizkion 2006an.*

Honakoa gehitzeko eskatzen dugu: Honakoa gehitzeko eskatzen dugu:

28.- 18. or. *Horrenbestez, jada 2005etik ez ziren betetzen ari Deltor Green, S.L.k Nafinco S.A.ri aurkeztu zion negozio planean aurreikusitako emaitza positiboak. Hala eta guztiz ere, 2007an, Nafinco, S.A.k Deltor Green, S.L.ri emana zion maileguak kapitalizatzerakoan, haren kapitalaren ehuneko 11,61 eskuratu zuen, eta horrekin Deltor Green, S.L.ren kapitalaren ehuneko 50 edukitzera iritsi zen.*

Eskatzen dugu adieraz dadila partaidetza handitzearen arrazoia izan zela hirugarren bazkideak/bazkideek ezin izan zuela/zutela partaidetzaren kuota ordaindu, eta horren ondorioz haien partaidetza beste bien artean banatu zen (akordeoi-eragiketa). Logikoa denez, beren akzioak galdu zituzten eta akziodun gisa geratu ziren bazkideen partaidetza kuota handitu zen.

29.- 19. or. *Beren beharra dela-eta justifikatuta dauden inbertsio-proiektuetan inbertitzea.*

Eskatzen dugu aipa dadila negozio plan horrek ez zuela jasotzen F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L. erostea, horixe izan baita galera gehienaren arrazoia.

30.- 19. or. *Horrenbestez, inongo ekitalditan ere ez ziren bete Deltor Greenek 2003-2007 aldirako aurkeztu zuen negozio planean aurreikusi ziren errentagarritasun aurreikuspenak.*

Eskatzen dugu alda dadila gomendio horren testua, zeren eta haren beharra justifikatuta baitzegoen, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubiderako zeukan Ureztaketa Planak jasotzen zuelako hektarea berrien erabileraren zati bat zuhaitzak landatzeko izatea, dela zur nobleetarako, dela biomasarako.

31.- 28. or. *2007ko martxoaren 20an, Echauri Forestal, S.L.k kontratu bat sinatu zuen Foresta Mantenimiento de Plantaciones, S.L.rekin, sail landatuaren mantentze-lanak egiteko, urteko 336.412 euroko prezioan, BEZik gabe. Kontratu hori, zeinaren iraupena zuhaitzak bota arterako ezarri baitzen, 2009an deuseztatu zen.*

Eskatzen dugu jasota gera dadila nolako zailtasuna zegoen horrelako mantentze-lanetan esperientzia zuen enpresa bat topatzeko, bai eta jasota uztea ere Viverosek adierazi zuela haiek ez zirela gai sentitzen lan hori egiteko.

32.- 34. or. *Nafinco, S.A.ren zuzendari kudeatzaileak sozietate publikoaren Batzorde Exekutiboari azaldu zizkion aurkeztutako proiektutik zein faktore ziren erakargarriak: errentagarritasuna, ehundura*

produktiboa dibertsifikatzen laguntzea (basogintzaren defizita), nekazaritza eta basogintzako errentak handitzea, Nafarroako ubidearen sinergiezt baliatzeko aukera, "unitate ekologikoa" aplikatzeko tresna izatea eta basogintza-teknologia berria aplikatzea.

Eskatzen dugu puntu horretan sar dadila Kontseilariak egindako balorazioa, proiektuan sinetsi zuen baina azkenean enpresa publikoek bezainbeste galdu zuen bigarren bazkide bat (pribatua) egoteari buruzkoa.

Iruñean, 2014 apirilaren 8an

José M^a Montes Ros, Inbertsio zuzendaria

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak egindako alegazioa

Txosteneko 31. orrialdean, zeina bat baitator "V.1.4. Echauri Forestal, S.L.ren finantzaketa" atalarekin, honakoa ageri da: "Diru-laguntzak eskatzeko aurkeztutako dokumentazioak huts tekniko eta administratibo ugari dauzka".

Testua hobeki ulertze aldera, eskatzen da lerrokada hori hurrengo puntuaren ondoren sar dadila:

"Echauri Forestal, S.L.k 2004an, 2005ean eta 2006an Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jaso zituen, 05.836 euro egiten zutenak".

Adeitasunez,

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Rafael de la Ricak aurkeztutako alegazioak

Nire abokatu Asiain jaunak ezagutzera eman dit txosten hau badagoela eta hari buruzko alegazioak egin daitezkeela. Hori dela eta, gustatuko litzaidake hurrengo zehaztea:

Nire zigorrari dagokionez (7. orrialdeko 2. lerrokada)

Agiriak faltsutzeagatik sozietate-delitutik absolbitu naute.

2 urteko eta 6 hilabeteko zigorra jaso dut konpainia finantzatzeko merkataritza-agiri bat faltsutzeko delituarengatik. Finantzaketa-sistema hori, ordea, sozietateko kontseiluak eta haren auditoreek ezagutzen zuten, eta hartaz baliatzeko, epaiaren arabera, nire bazkideen lankidetzara behar izan dut. Halere, ni bakarrik zigortu naute.

Urtebeteko eta 9 hilabeteko zigorra jarri naute dirua bidegabeki eskuratzegatik; hain zuzen ere, justifikatu gabeko bidaia-gastu batzuk dira, 26.237,34 euro egiten dutenak.

Horrenbestez, ez naute zigortu F.I.ren edo D.O.ren 3 milioi eurotik gorako galerekin zerikusia izan duen ezergatik ere.

Epaiaren aurkako errekurtsioa aurkeztu da Nafarroako Probintzia Auzitegian.

Echauri Forestal, S.L.ren ehuneko 30eko ondoz ondoko salerosketei dagokienez (11. orrialdeko 4. lerrokada):

Lehenengo salerosketa Plantaciones Forestales, S.L.ren eta F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ren artean egin zen, 698.142 euroko prezioan. Prezio hori zalantzan jarri zuten 2003ko auditoria egin zuten auditoreek. Kontseiluak erabaki zuen teknikari independente bati balorazio bat eskatzea. Balorazio hori Madrilgo Mendi Eskolako irakasle Fernando García Robledok egin zuen, eta haren bidez demostratu zen prezioa egokia zela. Horren erakusgarria da kontseilariak ontzat eman zuela eta auditoreek 2004ko auditorian ohartarazpena kendu zutela.

Bigarren salerosketa 2006ko martxoan izan zen, eta Deltor Green S.L.ko Kontseiluak eta Nafincok erabaki zuten. Prezioa 778.000 eurokoa izan zen, baina akats material bat tarteko, pentsatzen dut, zure txostenean dio prezioa 688.545 eurokoa izan zela.

Argipen hauek zure txostena zehatzagoa izateko balioko dutelakoan, adeitasunez,

Rafael de la Rica

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN- DAKO ERANTZUNA

Gestión Ambiental de Navarra, S.A.ren ordezkari eta haren ahaldun gisa Andres Sola Ollok, Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L.ren ordezkari José M^a Montes Rosek, Landa Garapeneko, Inguru-
meneko eta Toki Administrazioako kontseilariak eta Rafael de la Rica Arangurenek aurkeztu dituzten alegazioak aztertu ditugu, eta behin-behineko txostenaren ondorioak aldatzen ez dituztenez, txosten hori behin betikotzat jotzea erabaki dugu.

Hala eta guztiz ere, Ganbera honek honako zehaztapena egin nahi du Rafael de la Rica Arangurenek aurkeztutako alegazioari buruz:

1. Nafinco, S.A.k F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.ri Echaury Forestal, S.L.ren kapitalaren ehuneko 30 erosteko prezioa 688.545 eurokoa izan zen. Salerosketa kontratua hasiera batean 778.000 eurokoa izan zen, baina zuzendu zen partaidetzetik 89.455 euro kentzeko, hain zuzen ere F.I. Excavaciones y Reforestaciones, S.L.k Echaury Forestal S.L.rekin zeukan kreditu bati zegozkion kopurua.

Iruñean, 2014ko apirilaren 11n
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas